1972 — ABENDUAK, 10 XXXIII - garren urtea 510 - Zenbakia

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

NON ZER

- ARANEGIRI ERANTZUN IREKIA
  Baskaran ... ... 3 garrenean
- LEAKEY II LANEAN HASI
  Larresoro ... ... 3 garrenean
- TEORIA (IV)
  Ansola ... ... 5 garrenean
- ARTE
  Kortadi ... ... 7 garrenean
- APAIZAK DIRALA-TA
  Arostegi ... ... 11 garrenean

GIPUZKOAKO BASERRI BATEAN, GAU TXORI

Juan Luis Goenaga, euskal pintore gaztea

"Euskal Pintura" saria irabazi berria du





Gure zorionerako, illargi betea zegoen gau hartan. Zori onerako, Juan Luis ez baita gizon berdina gau guzietan. Ilargiak sena berezia ematen baitio. Hego haize eta ilargi argiek egoki baino egokiago janzten zuten azaroko gau hura.

Aste bete osoa falta zen «Euskal Pintura» sariaren banaketa erabakia izan zedin eta ez zegoen gure mutila sariaren zai. Juan Luisentzat pintatzea, arte egitea, bizitzea da. Hor arkitzen du, egunaren luze zabalean hain hitz gutxi esan ohi dituen gazteak, bere mintzaira bidea. Bakarrik bizitzeak ez dio bakardaderik sortarazten, inguru guztia eta barru betea ditu lagun.

—Juan Luis: Emaiguzu zure bizitzaren berri.

Urtarrilaren 9an Donostian jaio nintzen, orain 22 urte. Nere lehenengo urteak Ikastolan egin nituen eta gero batxiller delakoa bukatu nuen. Orduan ikusi nuen garbi ez nengoela konforme nere aldamenean ikusten nituen gauza askoz eta zeharo pintura bideetan sartu nintzen. (Ttikitandik hasia nintzen dibujoaz).

Beraz, pintura seriotasunakin hartzen, 17 urtetan hasi nintzela esan dezaket. Orduan, teknikaren oztopoaz aurkitu nintzen eta zerbait ikasi nahi banuen behintzat, kanpora irten behar. Kanpora, teknikarengatik: hori ez beste guztia gure Herriak, gure paisaje honek erakutsi baitit eta erakusten oraindik.

—Nora joan zinen?

—Parisa lehenbizi. Han ezagutu nituen KLE, KANDINSKI, BRANKUSI eta beste. Grabadoa zer zen ere ikasi nuen, bai eta harria lantzen ere. Berriro Donostiara itzuli eta orain, hemedik, gure herriko arte-egoera guztiak (pintura, eskultura, dantza) eta munduan zehar, batez ere Europan egiten ari den lanari ahal dudan bertaenetik, jarraituz.

—Orain azalketaren baterako lanak prestatzen ari zerala dirudi. Zergatik ez duzu oraindik azalketarik egin?

—Bai. Egia da aspaldidanik ez dudala azalketarik egin eta egia esan, orain ere ez dit gogo handirik ematen. Hala ere, kanpora irten naiz zerbait. Orain hiru urte, Zarautzen egiten den muraletako azalketan lehen saria irabazi nuen eta urte horretan bereotan, gaztearteko beste azalketa batean ere lehen saria eman zidaten, nere aurrenetako obra abstrakto batengatik.

Geroztik, lanean jarritu dut, bakarrik, alde guztietara joaz, bai pinturara, eskulturara, grabadora bai eta reliebetara ere. Lan guzti hauek gordeta daduzkat.

Benetan, azalketak egitea ez dut behin ere gogoko izan. Piskaren bat ere irten izan naiz hemendik: Paris, Erroma eta Londresko museo guztietan begiak ondo zabalduta ibilia naiz.

—Zer lan mota, zer arte mota duzu maiteen?

—Orain pinturakin nabil batez ere. Baina Parisen hasi nintzen eskultura lanean, batez ere harrian. Gero, Donostian, harria eta burnia ere landu ditut. Fotografia aldetik ere zer edo zer egin dut. Arlo hontan gauza asko dagoela egiteko iruditzen zait. Gaurko artistak gero eta gehiago ari dira fotografiaz baliatzen, batez ere "arte konzeptual" delakoaren barruan ari direnak, esate baterako JEAN LE GAC, eta JEAN DIBBIETS.

—Zerk bultzatu zaitu orain Donostian azalketa bat egitera? Noiz izango da?

—Lehen esan bezala, ez dut gogoko izan sekulan azalketarik egitea. Bainan ikusi dudanez, baten batzuek nere lanak agertzea interesantea dela uste dute eta horrek eman dit bultzada.

—Norentzat pintatzen duzu, bada?

—Nik ez dut behin ere beste inorentzat lanik egin, neuretzat baizik. Ni hobeki ezagutzearren pintatzen dut.

—Zer azalduko duzu Donostian?

—Azken urte honetan egindako lanak, batez ere aurten egindakoak. Lan denak gauari buruzkoak dira. Gaueko laino, ilargi, isiltasun, hosto-hots eta itzala ditut gai. Donostiako San Telmo museoan eginen dut, otsailaren 15etik 30era. "Euskal Pintura" sarira bi kuadro bialita ditut eta Azpeitiko Antxieta etxean eginen den azalketara ere bialiko ditut beste batzuk.

—Zergatik eta zertarako pintatzen duzu?

—Denbora luzean ez nekien argi zergatik eta zertarako pintatzen nuen. Gaur uste dut galdera horren erantzuna argiago ikusten dudala eta ahal dudan moduan erantzungo dizut. Gure gaueko baso, mendi, euri, elur, tximista, trumoi eta ontzaren oihuak maite ditudalako. Gure arbasoen leze-zuloetako pinturak eta mairubaratzak hobeki ulertzeko, ilargi-argipean egindako akelarreak hobeki ezagutzearren.

Nere ustez, gure euskal kultura guztia gauezkoa baita. Baserritako itzalak, kromletxak, sorginak eta azti guztiak gauekoak dira. Pio Barojak bere intuizio haundiarekin hau argi ikusi zuen. Bere "Alzateko Jauna" hortan agertzen diren espiritu guztiak gauekoak dira. Ontzak, sorginak, laminak, dantzak, Basa-Jaun eta Altzateko Jauna ere gauekoak dira.

Gure artea ere gauekoa da (Oteiza, Txillida, Basterretxea, Mendiburu...). Bustia eta gaua, euria eta ilargia, hauekin bizi eta lan egiten dut. Hala, nere azkeneko lanetan, euria (latza, Letek dion bezala) eta gure baserritako itzal eta hutsune hoiekin ari naiz. Eta gauza bat agertzea beharturik nago: nere lan guztia gauez egina dela.

—Zure pintura, beraz, euskalduna dugu... Zein izango lirake —izatekotan— euskal artearen egiturak?

—Bai. Nere pintura euskalduna da. Ez da retorikoa, hitz haunditakoa, barrukoa eta hitz gutxitakoa baizik. Gure kantuak bezala (beti berdinak, beti desberdinak), gure mendi, baso, erreka eta zelaiak bezala, bertsolariak bezala, kanpaiak bezala.

Euskal artearen egiturak nik baino lehenago jarriak dituzte bai Iztuetak, bai Barojak, bai Oteizak. Nere lanak isiltasunetik eta itzaletik doaz.

—Zer derizkiozu gaurko euskal pinturari? Eman izenen batzu.

—Nere ustez, gaurko euskal pintura oso bide onetik doa. Baina, hontan zerbait esan nahi nuke: Euskal Herrian egiten den euskal pintura eta Euskal Herrian egiten den pintura ez-euskalduna bi gauza direla. Nahiz eta biak Euskal Herrian eginak izan, alde haundia dago tartean. Lehenik, "GAUR" taldekoek konturatu ziren hontaz. Oso euskalduna iruditzen zait bai Zumeta, Balerdi, Sistiaga eta Ortiz de Elgea egiten ari diren pintura mota; oso euskalduna, Sistiagak egindako filma. Hori behar du euskal pinturak: lehenik, gure aurrekoek agindako guztia ondo ezagutu, leze-zulotan, kantu eta dantzatan. Horiei ondo begiratu, arretaz entzun eta kontuan edukiaz. Horrela gauza ederren bat sortu diteke lur hontan. Behin ere gure arbasoen lanak eta pentsaera ahaztu gabe. Gaurko artistek, erantzunkizun haundia daukate berengan.

—Zure pinturaren esanahia eta «Gaur» eskolarena berdintsuak edo berdinak omen dira. Ba ahal da «Gaur»en zantzurik zure lanetan?

—Bai. "Gaur" taldeak egin duen lanaren jarraitzaile bat besterik ez naiz. Berak erakutsi didatenaz eta gaur Europan zehar egiten ari denaz, hori dena ondo ezagutuaz aurrera jo beharrean nago. Nere lana egiterakoan, Arteta, Zubiaurre, Tellaetxe eta belaunaldi hartako guztiak gogoan eduki ditut eta batez ere "Gaur" taldearen lanak, pintura, eskultura eta filmetan. Eta ezin ahatz ditzakegu Antxieta, Etxabe, Iriarte eta gutxiegi aipatzen den beste zenbait artista euskaldun.

—oOo—

Nekez utzi dugu Juan Luis Goenaga bere baserrian gauean. Elkarrizketa hau izan eta gero jakin dugu denok «Euskal Pintura» sarian, hogeita bost urtetatik beherakoen artean, berari eman diotela saria. Nekez aurkituko dugu hain erabat bere artera emana dagoen artista gazterik. Zorionak eta jarrai, luzea da-ta aurretik dadukazun gaua.

ERRIALDE

(c) Ministerio de Cultura 2005

NERE BORDATXOTIK

Lengoak lengo dirala, kezka gogor bat geiago baserritarrak.
Ukullutik dauka bizimodua, ukullutik etorkizuna.
Gaitza nagusitzen bazaio, zer? Nun gelditzen da?
Ta Euskalerrian, zorigaitzez, emen degu berriro ankamiñ edo naparmiñ izeneko gaitz gogaikarri bezin kaltegarria. Ezkutaldiak egiten ditu, ta gutxien uste degunean agertzen zaigu, an ezpada emen.

—oOo—

Bata ezpada bestea beti,
zerbait ba-degu aldiro,
etsaiak indar izaten du-ta
ezta egoten beti lo.
Ukullu bete buru daukanak
ez pentsa daukanik giro,
itxura danez gure artean
gaitza sortu da berriro.

—oOo—

Egun auetan zabaldu dana
ezta berri atsegiña,
lenago larri dabillenantzat
berriz or dator eziña.
Ainbat galera sortu lezaken
gaitza degu ankamiña,
eta legea errespetatzen
egizagun alegiña.

—oOo—

Zabarkeria dala tarteko
ez familirik ondatu,
premizko diran erabakiak
dudan egon gabe artu.
Denbora joanik, gero negarrez
etzaiteztela gertatu,
obe dezute gaitzaren kontra
ganadu danak txertatu.

Azkoiti'n, San Andresak zira-lata, proba txapelketa aundi bat zan izatekoa.
Nola peri, azoka ta proba, gaitza menderatu arte danak eragotziak daude. Kalte aundia izan da Azkoiti'rako, Euskalerriko probalekurik osptsuenetako bat angoa dalarik.
Millakak dira urtero-urtero an biltzen diranak, eta aurtengo San Andresak tristeak izan dira probarik etzalako.

—oOo—

Penagarri da au gertatzea
San Andresak iritxita,
baiña legea danentzat degu,
egon gaitezke etsita;
batzuk ateak zabalik eta
beste batzuntzat itxita,
arrixku ontan ibili gabe
obe da galerazita.

—oOo—

Kristau, ganadu, lendabiziko
bear dana osasuna,
aberastasun danen gaiñetik
dagon aberastasuna.
Berriro ere iritxiko da
demetarako eguna,
gaitza lenbailen uxatzea da
orain komeni zaiguna.

—oOo—

Ala izan dedilla guztion onerako.
Ez pentsa baserriaren trantze estua kalearentzat mesedegarri danik. Alkarrekin bear degunak gera kale ta baserri. Baten larrialdiak eztu bestea poztu bear, mindu ta naigabetu baizik.
Zuk, irakurle, Zeruko Argia au eskuratu dezunerako erabakita egondo da Azpeiti'ko auzia, "Endañeta" ta Mendizabal gaztearen artean.
Indartsu oiek gogoan genituela, egun batzuk aurreraxeago onoko bertso auek molda genituen.

Gizonak or dakarki
griñatxo bat berez,
plazan ezta erosten
ta dendan ere ez.
Arkaitzik aundienak
jasoaz ain errez,
ederki osatuak
zaudete indarrez.

—oOo—

Batek talentua du
ta buru azkarra,
ikastea da bere
amesgai bakarra.
Beste batzuk dirua
dute "barra-barra",
ta zuek dezutena
gatza ta indarra.

—oOo—

Arbola bakarretik
dator ainbat adar,
batzuk zuzen, egoki,
beste batzuk baldar.
Guztiok desberdiñak
gera mundu zear,
bakoitzak bereakin
konformatu bear.

Ederki egin ditu gauzak gure Jainkoak.
Danok zaletasun eta griña berdiñak bagenitu, lenezgain orduantxe bai aspergarri litzakela mundu kaxkar au!
Gure jolas eta deporteak eztira beste errialdetakoak baiño ederragoak; ezta itxusiagoak ere.

Baiña, batipat, geure-geureak diralako maite ditugu, izkuntza paregabe au maite degun bezelaxe.

—oOo—

Zarautz, Aia, Getari ta inguru errietako nekazarei albiste bat eman nai genieke.
"Servicio de Extensión Agraria" deritzaien oietako lan-toki berri bat, ofizina bat, idekia dute Zarautz'en. Oiartzun, Tolosa, Bergara, Azpeiti ta abarretan lendik jarriak daude, ta lan ederra ari dira egiten. Nekazaritzako Ministerioak pagatzen dituenak dira serbizio auek.

Bertako enpliatuak nekazari peritoak; ikasketa edo estudio danak ortarakoxe egiñak.
Luis Butron jauna da Zarautz'en dagona. Berak bixitatu ginduzen lengo egun batean.
Babarrun, leka edo bainetan, aza edo kloniforetan, fruta arboletan, edo beste edozein lur emaitzetan gaitza daukazula?
Zomorroak pikardia egiten dizutela? Sagasti on bat jarri nai zendukela? Aurrera ondo eramateko zer egin bear dan jakin? Poaketan eta txertaketan trebetu?
Berdin da ukulluko goraberetan. Ortarakoxe egin dute karrera; ortarakoxe ikasi dute gizon auek. Zure soro, zelai edo baratzako lur muestratxoak ekarri, ta garbi esango dizute zer ongarri komeni zaizun; zer jenerok emango dizun ondo, ta zer jenerok gaizki. Lur batzuk karea palta dute, beste batzuk ondarra edo buztiña; edo geiegi tetik.
daukate batetik, eta eskas bes-

Tomate lur ona izan diteke piper lur txarra. Nun zer jarri jakitea bezelakorik ezta.
Belar txarrekin ezin dezula burutu? Aiek galtzeko zer erremedio dauden?
Azaldu Zarautz'ko ofizinara, ta galderak egiteko kezkarik ez izan. Zeure baserrira ere pozik joango zaizu perito jauna, ortarakoxe dago-ta.
Ofizina au Zarautz'ko azoka plazaren kontra dago; len erriko Ispezioa izandako lekuan.

Baxarri

BERTSO BERRIAK

AZKEN BERDIÑA

—1—

Miren Jone asi zait
neri kargu artzen,
aspaldi eztedala
nik bertsorik jartzen;
norbaitek ezpaditu
aurretik botatzen,
zailla da eltzetikan
babak ateratzen.

—2—

Kalean ikusita
esan zidan neri,
emana nengoela
alperkeriari;
Zeruko Argia'ren
zuzendariari,
esango diot orain
zergatik dan ori.

—3—

Eztit lotsik ematen
neri esateak,
buru, anka ta beso
daukazkit torpeak.
Laister utziko ditut
noski, deporteak,
trankil pasa nai ditut
nik azken urteak.

—4—

Gizonaren bizitza
zearo da motza,
nun da nik lanerako
len nedukan poza?
Kolpe bi jo orduko
nekatu biotza,
inguratzen ari zait
neri eriotza.

—5—

Len lan egiten nuen
jaiaren pozean,
lotuta ezin eduki
ninduten etxean;
bertso, bola ta toka,
beti jolasean,
minutu bat ez nuen
galtzen otoitzean.

—6—

Geien maite nituen
bola eta toka,
errero baten gisa
beti burni-joka.
Naiz Jaunak eman neri
lareunen bat kopa,
Aitagure bat iñoiz
ez nion nik opa.

—7—

Bola ta tokarako
ni ez nintzan jaio,
naiz aspaldian egin
makiñabat saio.
Kristau aldetik eztet
nik jokatu iaio,
Jaunari ere zerbait
eman bear zaio.

—8—

Kristau aldetik, beraz,
izan naiz kaikoa,
kopak irabaztea
ezpaita naikoa.
Damuturikan nago
nere Jeungoikoa,
Zurekin izandua
esker txarrekoa.

—9—

Urtien karga artu
arte bizkarrean,
ez gera konturatzen
gu, zoritxarrean.
Naiz millaka titulu
eduki lurrean,
eztutela balio
Jaunaren aurrean.

—10—

Kontatu ezin ala
ditut nik orduak,
sari oien atzetik
alperrik galduak;
nere fama pittiña
eta tituluak,
aurki jango dituzte
noski, zomorruak.

—11—

Geiena jota ere,
amabost bat urte
gelditzen zaizkidala,
nik esango nuke.
Errege ta Ministro,
Konde eta Duke,
paradero berdiña
eramango dute.

—12—

Eztakigu egunez,
edo gabaz lotan,
atea joko duen
eriotzak: tan-tan.
Neronen azkenengo
ordu larri artan,
Jauna, ez utzi zure
laguntzaren paltan.

Manuel Matxain

Aiete

SAN TOMASAK

Badu San Tomasetako feriak arrakasta Donostian. Nekazari asko bildu oi du inguru-marietatik. Beste ikus-festa batzuen artean idi-demak eratu dituzte Abenduaren 17-21 eta 24rako. Goizeko amabietan eta arratsaldeko lauterdietan jokatuko dira Trinidade plazan.

Aldi ontako idi-demak debekatuak izan dira zenbait erritan anka-miña edo nafar-miña dalata. Baina Donostiakoak jokatuko diran itza jaso dugu eratzen dituen «Atracción y Turismo» etxearen partetik.

Gaitza sendatua izango dalakoan emandako itza dala uste dugu bestela ez legoke berdintasunik. Dana dala badakizu garbi jokatuko dirala. Ez dirala debekatuko.

Ogei sari daude. Ogeita amar milla pezetatik asi eta bi milla pezeta arte koskan koskan jetsiz.

Askoren jakinmiña ase dugulakoan gaude. Eta demazaleei poza eman diogulakoan. Ondo igaro Santomasak.

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gasteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almeria, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.° Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Apdo. 1381

(c) Ministerio de Cultura 2005

Zibillei esan diegu

Negar egingo luke...

NEGAR EGINGO LUKE...

Eibarren ginen San Andres bezpera goizez. Ez ginuen festa usainak eraman. Ez eta egiaren jakinminak. Ez zen arrazoia nork zukeen jakiteko leku egokia gure ustez. Gure egoera bihurriaren mina jasatera joan ginen. Arrasatetik eldu zen goiz hartako aize min eta bihurria.

"Pozik jakingo nuke zeinen alde zaudeten" galdatu zuen adiskide dugun legegizonak. "Beti bezala zuzenaren alde, noki—, erantzun zion berak bere galderari. Ez gaude inoren aurka. Bi alderdiek izango dituzte, noski, zer aztertua eta zertaz damutua. Bien alde gaude eta biek egin zezazketen okerren aurka. Urtearen buruan izango ziren bi aldeetatik ere amaikatxo gorabehera, amaikatxo zurrumurru, egiztatze eta gezurtatze, amaikatxo jauntxokeria.

Ez dugu batak eta besteak, itsumen eta bero aldian, eman dizkiguten berri eta albisteekin iritzi jator bat artzeko ainbat argi. Baina badugu ari-matazaren azken muturrak burura jalkitzen dizkigun burutapenak ezartzeko eskubide.

Gogora bitza irakurleak Erriak igaro dituen zenbait gertaera eta une lalarri. Txanpanez ospatu izan ditu gure erriak, ondo atera zaizkion zenbait gauza. Maila eta era guztietako euskaldunek jaitu dituzte. Orain, berriz, erri horrek berak ez du errukirik izan, kalean utzitako zenbait irakaslek bere ekubideak auzitegian eskuratu nahi zituenean.

Izan zuen aurrez erri horrek batzar nagusia. Entzun zien batzuei eta besteei. Izan zuen erabakia artzeko aukera, izkutuko txartelez. Eta erabaki hori bete zedin ehun lagile eta gehiago, lan-orduak galduz, ikastolako ateak zaintzen.

Erriak epaitu ditu eta gogor epaitu ere. Erriak eta gogor, baina min duelarik, galera duelarik. Erriaren auzitegian galdu dute auzia. Jakina, erri hori lehen, orain, gero eta beti itsu izanen da, lozorroan dagoena, jainko txikiek menperatua. Hori jakinik asi behar dugu demokrazia jokoetan. Hori jakinik jo behar dugu erriaren auzitegietara. Aundia da Erriaren sena eta beldurgarria haren erabakia.

Nora jo hor galtzen duenak? Andereñoaren ordez "profesora" eta Edurneren ordez "Blanca" esanaraziko duen auzitegira? Lan arazoetarako dagoen auzitegiak, pentsaera arazoa erabaki dezan? Denena den ikastola beste norbaitena dela esatera? Legearen izkutuan dagoen nola halako ikastetxeren bat den susmoa sortzera? Ikastola maite duten eta aurrera atera nahirik beren bizitzako urterik onenak ematen dituzten irakasleak, ogi-bide uts besterik ez dutela aitortzera? Zertara? Euskeraz ez dakiten amen umeak ere badabiltzala azaltzera?

Erriak gaitzetsi gaituenean ez dago beste biderik. Ez eta arrazoi gabe gaitzetsi gaituenean ere: sufritu. Merezi du erriarengatik sufritzeak nahiz eta erri horrek eskerrik ez eman, nahiz eta zigortu. Erria lo dagoelako, indargabe eta ilzorian; erria esnatu, indartu eta bizitu behar delako daude ainbeste eta ainbeste arriskuan eta erasopean. Merezi du bere buruaren jabe ez den erri horrek, ezjakinean ere, zigortzen gaituenean beragatik sufritzea. Erria behar dugu irabazi. Erria salbatu.

Goraipatu izan ditugu erri honen auzitegian irabazitakoek salbatzera, beste auzitegitara joandako legegizonak. Gaur gaitzetsi egiten ditugu. Ez diteke erriaren erabakirik honelako auzitegietara eraman.

Beste zerbait da eginbeharrezkoa, norbaiten jauntxokeriaz gaizki epaitu ez dezan: Ondo baino obeto batzuen eta besteen eskubideak paperean aurrez erabakirik ezarri. Ez ditezke irakasleak ezeren babesik gabe geldi. Gertaera honek araudi bat egitera, zetabaidatzera eta onartzera bortxatzen gaitu. Ez gaitezen txinpartak ikusi zai egon, sua itzaltzeko.

ARANEGIRI ERANTZUN IREKIA

Agur Aranegi: Ez dakit nor zaitudan. Beste izen bat dagoela uste dut deitura horren atzetik. Ez zait axolarik. Zure izen ezezagun horrek nerekin lanean ari diren eta nerekin batera bizi diren eta nerekin batera farra egiten duten gizon jakin batzuk gogorazi dizkit. Beraz ez dut zu ezagutzeko jakinmin haundiegirik.

Z. Argiako zuzendaritzak zuretzat, zure iritziak azaltzeko, lekua izan badu, neri ere aukera berdina emango didala uste dut. Ni ere harpidedun eta irakurle nau.

Irakurri nuen Z. Argiako 507 zenbakian «Burges aurrerakoi bati» zuen izenburutzat. Nahikoa eztenkatu ninduen, egia esateko. Neri zuzendua zegoen. Ondo ezagutzen nauzu. Ederki adierazi zenduen ni nolakoa naizen. Ez zaitut zikindu nahi neure burua zuritzearren. Zorionak. Ez zabiltza neregandik edo ni bezalakoengandik hain urruti.

Ontzat ematen dizut neregatik edo guregatik diozuna. Baina utzidazu neri ere zu nolakoa ikusten zaitudan esaten.

Hamalau urte arte joan zinela eskolara diozu. Ni, egia esan, askoz urte gehiagotan ibili nintzen. Baina ez didazu poliki bizi zeranik ukatuko. Zuk esaten zenduenetik eta zuk erabiltzen zenduen esateko eratik kontuak ateratzen ditut. Zu beheko burges txikia zaitugu.

Gogorra izan da bizitza zurekin. Nerekin ez. Baina gaur eskuan duzu atzo amesten eta irrikatzen zenduen hori. Burruka askoren ondoren, baina eskuratu duzu. Ez didazu ukatuko. Eta lehen ez zenduen zerbait, asko maite zenduen zerbait, izerdi askoren ondorio den zerbait eskuan duzulako zaude hain zuzen duzun hori galtzeko beldurrez.

Ez zaidazu gaizki har. Baina lehengoaren euskarri eta gordetzaile bihurtu zera. Konserbadore zera. Gezurra dirudi, baina egia da. Zuretzat bizitza borroka izan da eta da. Borroka horren etekin duzu eskuan daukazuna. Eta hori ez da hutsaren urrengo. Gogor zaizu, hori galtzeko arriskuan jartzea. Utzidazu borrokatu beharrik izan ez dudanez gero tantoa nere alde jasotzen. Zuk badakizu zer den ezer ez edukitzea. Nik ez. Zuk ez duzu lehengora itzuli nahi. Neri ez zait hain beldurgarria iruditzen. Baina ez ahatz beste alderdia. Zuk diozunez borrokatu zera eta borrokan jarraitzen duzu. Baina zure indar eta ahalmen guztiak bereganatzen ditu borroka horrek. Borroka horrek eta borroka hortatik ateratzen duzunak galerazten dizue hain zuzen eskuratzea falta zaizuna ikustea.

Horregatik zera konserbadore. Eta hortan ez dut bat ere gaizki esan nahirik. Egia zen neri esaten zenidana. Baina hau ere ez da gezurra.

Nork esan! zu konserbadore bihurturik. Eta zenbat eta zailago gertatu zaizun ez zenduena eskuratzea, orduan eta duzunaren gordetzaile haundiago egin zera.

Zuk gauzak aldatu nahi dituzula esaten zenidan. Ez dut hortan zalantzarik. Baina zure kezkarik nagusienak, euskera, kultura arloa eta gizatasun alderdia direla... ez didazu ukatuko, noski. Berriro diozut. Gogorra izan da zurekin bizitza eta zure indar guztiak ahuldu dizkizu. Nekatua zaude beste bide eta ekintza batzuetarako. Oso indar hilak eskaini zenilzake. Ez ahatz, lagun, Alpes eta Pirineo mendietako gailurrak kaletarren oin uratsez berotuak izan zirela eta ez baserritarrenez. Gizona menditik behera jetxi denean, igo da mendirik gorenetara. Bidezko da. Bizi den tokiraino igotzea aski du mendian bizi denak.

Nere gurasoek zuten kezka beneberak estutzen zaitu: zure seme-alaben eskolatzeak. Eta zure seme-alabak ez dira konserbadore hutsak izango, konserbadore eta burges gainera, biak. Itxoin zure bilobak jaio arte eta beren aitonak hamalau urte arte bakarrik ikasi zuela ahaztu arte.

Ez didazu eraman-ezinik esaten didazu. Sinesten dizut. Nik denei sinesten diet. Baina hartu duzun trenak, zu eta zure familia, ni bizi naizen lekura ekarriko zaitue. Nahitaezkoa izango da agian.

Baina utzidazu esaten: ez du merezi. Ez duzula nere bizieraren irrikarik diozu. Sinesten dizut. Baina zuk ere sinesta zaidazu ez duela merezi. Mendira noa ostera. Goenean egon denak bakarrik daki gaindegitik ikusitakoaren berri, igotzea merezi duen ala ez. Eta nik diozut.

Baina argi. Ni nagoen lekura etortzerik ez duela merezi diodanean ez dizut zauden tokian gelditzeagatik esaten. Ez: Mendi hontara igotzeak ez du merezi. Ez zu zaudenera, ez ni nagoenera eta ez besteak daudenera. Baina badira mendi ederrak. Hau ez. Eta badaude, noski, mendiak berdintzeko tresna egokiak. Ameslaria naizela esango didazu Egia diozu. Zu, berriz, ez izan ditekeenaren zale, orain denaren zale baizik. Nik oinez ibiltzen ikasi behar dut. Zuk, berriz egan.

Ez zuririk eta ez beltzik dela uste dut. Berekin darama beltzak zuritik. Zuriak ere beregan dauka beltzetik. Eta hau irakurtzerakoan norbaiti orixka ere badela gogoratuko zaio. Berdin zaio. Oriskaren aurretik ere bazen gorako eta beherako bidea. Bietara eramaten zuen bide bera. Guztitik dugu denok.

Zergatik gehiago luzatu? Aitortzen dut egiarik esan zenidala zure eskutitzean. Baina egiaren luze-zabal-sakonak askoz ere haundiagoak dira. Asmamena, irudimena, amets egia, behar duzu. Egan ibiltzen jakitea. Nik lurra sendoago apaldu behar dut. Jakineko gauzetara makurtu behar dut. Oinez ibili behar dut. Zuk gehiegi duzuna nik gutxiegi eta nik gu txiegi dudana zuk, berriz, gehiegi.

Zu eta ni eta denok gauden mendi honek ez du merezi. Zuk gauza batzurengatik saltzen duzu zeure burua. Nik beste batzurengatik. Nik garestixeagoengatik. Baina biok gaude saldurik. Berdin besteak ere. Baina badaude mendiak berdintzen dituzten tresnak. Bion artean desegin dezakegu saldurik gauden mendi hau. Egin dezakegu gizonak bere burua saltzen ez duen gizartea.

A. Baskaran

LEAKEY II, LANEAN HASI

Louis S.B. Leakey jakintsua hil da; baina doi-doi aipatu da berri hau.

Askoz errazago hitzegin baitaiteke azkeneko futbol-partidaz, antropologo jakintsu batez baino.

Prentsaren akats hau ez da gaurkoa, jakina; eta ez da bihar konponduko. Baina gauzak horrela gerta daitezeno, nekez uka ahal izango da aldizkarien heziketa-eskasia: irakurlea hezten eta eskolatzen baino laioago agertzen baitira, behin eta berriz, irakurlea kamusten, astatzen eta jakintza-arloetatik baztertzen.

Louis Leakey jakintsua hil da, beraz. Eta ozta hila da, Leakey-ren izen berbera aipatu da berriz. Oraingoan «Leakey Man» bataiatu den paleo-gizonaren kaskezurraren berria zabaldu da.

Richard Leakeyk, horrela, ausarki hartu du eskuetan bere aitak piztu zuen zientzi-zuzi azkarra. Olduvai-ko aurkikundeak, Kenya-ko lurraldeetan, Leakey aita hil ondoren ere aurrera doaz semeari esker; eta Leakey II honek esan duenez, badago inguru haietan 25 urtetarako lanik!

Pekain-go hartzuloetako margoak agertzean, pozez gainezka mintzatu zitzaigun geure J.M. Barandiaran; eta, oker oroitzen ez banaiz, halako poza emateaz Jainkoa eskertu bide zuen.

Honelako zerbait gertatu omen zaio Leakey aitari. Ze hau hil baino *astebete lehenago* erakutsi baitzion semeak Rudolf-Lakuaren Iparraldean aurkitu berririk zedukan kaskezur aparta. Hots, kaskezur horretxek funtsatu ditu L. Leakey zenaren usteak, urte askotan zehar harek ezin frogatuak. Alegia: L. Leakeyk zionez, uste izaten zen baino aisa *urrunago* bilatu behar zen gizonaren jaiotza; eta Olduvai-ko Zinjantropo tximu-aidea ez zen gizonaren arbaso, gizonaren *lehengusu* baizik. Beti L. Leakey-ren iritziz, bazegokean beste eboluzio-adar bat, oraindik ez aurkitua.

«Leakey-Man» bataiatu den paleo-gizon hau orain dela 2.600.000 urte bizi izan zen Kenya-ko eskualdeetan (Urte-kopuru hori minimo bat da; kaskezur horren gaineko lur-azal bat ikertuz, 35 metro gorago, potasio-argon-en azterpidez, Cambridge-ko Jack Miller-ek karkulatua).

Gizonagandik bertago Zinjantropoagandik baino, hauxe omen da L. Leakeyk falta zuen kate-lotkia. «Leakey-Man» honek, hain zuzen, Zinjantropoak izan zituen «herrikide», guk gaur gorilak bezala. Zinjantropoak baino buru-muin handiagoa zuen: 800 cm.^{3}, eta ez 500 cm.^{3}; bi oinez ibiltzen zen (orain dela hiru bat miloi urte!); eta, hitz batez, *atzerago* bultzatzen gaitu gizonaren eta tximuen arteko berezketa bilatu nahian. Uste genuen baino *zaharrago* da gizona. (Hauxe idatzi nuen orain dela urte t'erdi orrialde hauetan).

R. Leakey-ren ustez, horretara, Zinjantropoaren adarra, segidarik gabe, orain dela 700.000 urte suntsitu zen; tximunenak eta gizonenak, berriz, gaur arte atxikiz.

«Eta guri, zer axola?», galdegin dezake beharbada batek edo besteak.

Erantzunak, ordea, ezin larriago dira:

a) Gizona, Zinjantropoa eta tximuak oro *jatorri berbereko lehengusuak gara.* Ez gatoz gu txinpantzeagandik, edo orangutanagandik; baina txinpantzeak, orangutanak eta guk gizonok *arbaso berberak* ditugu.

b) Eboluzio-k a t e a n betekizun zeuden *hutsuneak*, piskanaka-piskanaka ari dira betetzen. Leakey-ren aurkikunde hau, eta aitarenak berdin, lerro horretan sartu beharra dago; eta ezin inportanteago izango da jakintsuen iritziz (Leakey Darwin-en kide gisa aipatzen dute batzuek). Leakeyk frogatu duenez, Gizadia sustraitik beretik da, antropoideen *adar bat*.

d) Gero eta seguruago da gizona *aspaldidanik* dela gizon, morfologiaren aldetik bederen. Eboluzioa, hitz batez, milaka mendetan barrena obratu da: urteak *miloika* behar dira kondatu tximuagandik gizonagana pasatzeko. Orain dela miloi-urte batzuk prestatzen ditu lan-tresnak gizonak. Miloika urtek honetara gaituzte.

e) Biologi-oinarria, beraz, *oso aspaldidanikoa* du gizonak; eta, zientziak erakasten duenez, *oso poliki* horretara da. Gauza bera, itxura denez, psikologi-eragile nagusiak. Gizona berehala eta funtsez alda daitekeala pentsatzea sineskeria hutsa da, eta Zientziaren kontrakotzat jo behar da: Eboluzioaren azterketak erakasten duenez, gizona inoiz alda badadi (?) ez da oso oso poliki baizik aldatuko.

Ondorio hauek inori gaitzi bazaizkio ere, Zientziaren ekarriak dira; eta alferrik da *Egiaren aurka* altxatzea.

LARRESORO

ZERUKO ARGIA,
euskal kulturaren alde.
Egizu arpide berri bat
zure lagunartean.

ZERUKO ARGIA

Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragolko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66.

ARPIDE SARIA:

Barruan	800 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

(c) Ministerio de Cultura 2005

HITZALDIAK

Gauzak boladaka gertatu ohi dira. Badirudi zain egon ohi garela baten batek zerbait egin edo antolatzeko, besteok ere zerbaitetan hasteko. Ekintzak ekintza dakar. Giroak girotu egiten gaitu. Zenbaiten eraginak arnasberritzen gaitu. Isil eta geldiunari amorrazioak jarraitzen dio.

Halakoren bat gertatu zaigu hitzaldiekin. Azken bolada honetan ez genduen ia inongo hitzaldiren berri. Baina, hara non, aldiz, abenduaren lehen astebetearen inguruan loratu zaigu amaika hor zehar, Euskal Herrian barrena, Donostian, Iruñen, Leitzan, Oñatin, Andoainen, Eibarren, Bergaran, Gasteizen, Azpeitian eta, behar bada, jakin ez dugu beste zenbait lekutan ere.

● Leitzetik jaso dugu Iñaki Aizpuruk bidali digun gutuna. Leitzen bertan eratu dituzten hitzaldien berri ematen digu irakurle sutsu honek. Nahiz eta berandu samar izan, eskertzekoa da, noski, denok horrela eginen bagendu...

Dena den, diogun, azaroaren 26an. eratu zela lehen hitzaldia. Xabier Lete eta J.A. Arza, **Gaurko Euskal Poesiaren Egoeraz** mintzatu ziren. Abenduaren 3an., berriz, J.M. Lekuona **Bertsolaritza eta ahozko literaturaz.** Abenduaren 10ean., azkenik, goizeko 11,30etan. Juan San Martinek **Lehengo Euskal Gizonaz** hitzeginen du.

● **Eibarren, S.C.R. Arrate delakoak eraturik, heziketa eta metodi pedagogikoei buruzko bi hitzaldi programaturik ziren. GAUR, S.C.I. taldeko J.A. Agirre, Joseba Etxabe eta Victor Suinaga,** Heziketa Askatzaile baten beharrezko puntuak aztertzeko ziren, lehen hitzaldi batez. **Bigarrenean, ordea, Eusebio Osak** Heziketa eta Hizkuntza **zuen gaitzat.**

Lerro hauk inprimategian dauden artean izanen ditugu honako hitzaldi bi hauk. Datorren astean eman ahal izanen dugu berri zehatz eta ugariagorik.

● Donostian, Mundaizko EUTG delako Sikologia Batzordeak eraturik, bost hitzaldi muntatu dira **Haurren hizkuntza problematikaz.** Dagoeneko hiru hitzaldi emanak dira. Beste bi, berriz, oraindik emateko, abenduaren 11 eta 12an. alegia, iluntzeko zortziretan.

● **Gasteizko Aurrezki Kutxa Munizipala antolatzaile delarik, eratzeko da Gasteizen bertan "Euskal Gaiei" buruzko zenbait hitzaldi. Honako hitzaldi hauk hilaren 14tik. 22ra. eratuko dira Luis Ajuria deritzan antzokian.**

Hitzaldi bakoitzeko gaia oraindik ez dakigun arren, jakin dugu, ordea, harako hitzalditan Jose Luis Banus (historiagilea), Jesus Dorao (ekonomilaria), Julio Cesar Santoyo (hizkutnzalaria), Luis de Nicolas (sikologoa), Iñaki Linazasoro (kazetalaria) eta Pilar de Cuadra (idazlea) jaun andreok parte hartuko dutela.

Ez dugu, noski, ukatuko, hizlari bakoitzaren balio eta jakintza maila, nork bere arlotan behintzat. Baina ez dugu uste, hala ere, aipaturiko hizlari hoiek euskal gaiez hitzegiteko aukerakoenak direnik.

● Hitzaldi **kontutan, ahalik eta posibilitate handienez** baliatu beharra dugula ondotxo erakutsi ziguten iaz bergararrek. Aurten ere nahiko programa polita moldatu digute, inprimategian argitara eman duten esku-programa dotore batez. Irakurleak ikus beza:

Hilaren 12an. Gaia: **Lenengo Euskal Gizarteak.** Hizlari, Benantxio Oategi.

Hilaren 13an. **Lenengo Euskal Gizonak.** Jose Migel Barandiaran.

Hilaren 15ean. **Euskal Ekonomia Europari Begira.** Zuzendari, Jenaro Garate. Azterlari, Gurutz Ansola eta Ramuntxo Camblong.

Hilaren 19an. **Olerkia.** Xabier Azurmendi.

Hilaren 20an. **Euskal Hiztegia.** Koldo Mitxelena.

Honako hitzaldi hauk "Amigos del Pais" Elkarteko "Irigoien" Patronatoak eraturik dira, eta Bergarako Maestria Eskolan eratu ere, arratsaldeko 8,30etan.

Saio hautarako matrikula 100,— ptakoa. izanen da. Izenak eman eta txartelak jasotzea, berriz, "Juventudes" delako Elkartean eta Amenabar eta Lonbide dendetan.

● **Azpeitiarrak ere ez dira ba txantxetan ibili. Horra hor irakurle, Urola Ibarreko Biltzarrak direla eta moldatu duten programa eder eta aberatsa. Harako biltzarrek abenduaren 7an. hasi eta hilaren 17ra. arte iraunen dute. Dagokien programa joan zen asteko Z. ARGIAn duzu, irakurle. Denetarik aurki ahal izanen duzu: hitzaldi, erakusketa, zine, antzerki, bertsolari, liburu azoka, kantari, konzierto, txalaparta, dantzari, baleta, poesia etab. etab.**

Zer egin eta zer eskaini badagoela dirudi, eta bide honetan abiatu dira azpeitiarrok. Zorionak, eta izan dadila denontzat eredugarri.

● Andoainen eta Oñatin ere zenbait hitzaldi eratu da ikastolietako patroi den Frantzisko Xabierreko sanduaren egunaren inguruan. Hitzaldiak ezezik, bai eta Euskal Liburu eta Disku Azoka ere.

IDAZLEHIAKETAK

Udalak eraturik, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren laguntzaren pean, moldatua da Eibarren Gabon Idazlehiaketa.

Idazlehiaketa honetan hamalau urte arteko neska-mutiko eibartar guztiek parte hartu ahal izanen dute. Gaia, GABONAK, eta idazlanok euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke, gehienez ere hiru folio haina luze.

Ohi denez, idazlanok izengoitiz beharko dira bidali, izen bereko sobre batetan. Halaber, sobre hau beste baten barruan sartuko da, non izen-deiturak eta zer eskolatakoa den adiaraziko da. Idazlanok abenduaren 20a. baino lehenago igorri beharko zaizkio Donostiako Aurrezki Kutxari. Azken epaia Urtarrilaren 15ean. jakinaraziko da.

Udalako Heziketa Batzordeak izendaturik, euskarazko idazlehiaketaren epai-mahia, Juan San Martin, Imanol Laspiur eta Serafin Basauri jaunek osatuko dute.

● Gabonak direla eta, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren laguntzaren pean eta Belenzale Elkarteak eraturik, prestatu berri da —urtero ohi denez— gabonei buruzko idazlan, olerkiren eta beste lehiaketa.

Idazlehiaketari dagokionez, araudiak irakurri ditugun arren ez dugu jakin ahal izan idazlanok euskaraz egin daitezkeen edo ez. Ez ote dago esan beharrik? Pozgarri lizateke benetan horrela balitz, baina, gaude, bizi garen egoera honetan honelako gauzek zehaztu beharra ez ote duten.

Bestalde, harrigarri deritzagu Belenzale Elkarte honen hutsune honi, zeren Donostian duen denda batetan sarri asko ikus ahal izan dugunez, gaztelaniaz bezain ugaria du katalunyeraz idatzitako belen-bibliografia.

Honetaz ere, katalunyarrek beren aintzindaritasuna erakusten digute, edozein gaiaz, nahiz eta xinpleenean ere, beren hizkuntza landu eta erabiliz.

Guk, jakina, badugu zeregin larriagorik, baina dena den, hobe lukete gure belenzaleek —Donostia eta Gipuzkoan barrena ari direlarik— katalunyerazko liburu gutiago erakutsi beren eskaparatetan eta euskarazko bideak apurtxo bat gehiago jorratu.

LEKUE TXISTULARIA

Aurreko alean Lekue txistulariaren heriotzaren berri eman genduen. Esan ere esaten genduen Euskal Herriko txisulari zaharrenetakoa genduela. Ez zen, nonbait, gezurra, baina ez eta egia biribila ere, zaharrenetakoa ezezik, zaharrena Lekue bera bait zen.

Angel Lekue Oleagada Bizkaiko Plentzian jaio zen 1884 urtean, martxoaren 1goan. Hamalau urte baino ez zituen txistuari ekin zionean. Oposiziotan irabazi zuen Ondarruako txistularitza, ondoren Zumarragakoa, eta Abando eta Ciervanakoa azkenik.

Gero, batek daki zergatik, Tudelara joan zitzaigun duela zenbait urte —ezin zitekeen Euskal Herrian barrena urrutiago joan— eta bertan bizi izan zen, amaika urtetan, udazkeneko iluntze batetan betiko joan zitzaigun arte.



Lekue, Euskal Herriko Txistulari zaharrena.
(Peinado eta Maen azgarkia)

Bilbaoko egunkariren batek nahi izan omen zion omenaldiren bat eskaini, baina... betiko baina, azalezko notizia "polit" bat baino ez zen izan. Lekuek jakin ahal izanen zuen, noski, asmo hartaz, eta halako omenaldi baten hotsa susmatu zuena, batere agurrik, txalorik eta oroimenik gabe joan zaigu 88 urtetan. Ezin ere esan ba —halakoetan esan ohi denez— uste baino lehenago joan zenik.

Goian bego gure Lekue txistulari isila. Kantauriko itsasbazter euritsuan jaio, eta Tudelako lur lehor eta gorritan ehortzia. Bera ere, bere era eta gisara, bere euskaltzaletasun "apalean", Euskal Herriko desberdintasunen berri jakin ahal izan zuen. Goian bego.

EUSKALDUNTZEN

Duela hiruren bat aste, Eibarko "Escuela de Armeria" delakoan eratu zen inkesta baten ondorioak aipatu genituen sail beronetan. Aipatu ere aipatu genduen, eskolako programaz gainera zer egin nahi luketen galdetu zitzaiela ikasleei, eta lehenik EUSKARA IKASI erantzun zutela.

Noski, ikasleen eskari hura ezin zitekeen nola nahi ahantz, edo anekdota polit bat bezala laga. Eskola arduradunek Juan San Martinengana jo zuten, Euskaltzaindiko idazkari denez gero, hartaz bideren bat edo beste urra ziezaien.

Ondorioak berehalaxe etorri zaizkigu, Juan San Martinen ardura eta zuzendaritzaren pean eratuak bait dira sei talde, euskararekiko ikasle bakoitzaren ezagupenaren arauera. Guztiz laurogeiren bat ikasle dira; maisuak, berriz, zazpi: Antton Narbaiza, Jesus M.ª Arrieta, Manuel Beraza, Juan M.ª Perez, Kontxi Mandiola, Alberto Agirreazaldegi eta Fidel Eizagirre.

Aipaturiko laurogei ikasleren artean bada euskara arras menderatzen duen zenbait, bat eta tutik ere ez dakitenak ere. Goi mailakoentzat prestatuak dira gramatika ikastaroak eta beste, ezer ez dakitenentzat berriz, Euskalduntzen eta Euskera hire laguna! metodoak erabiliko dira.

Horako ikastaro hauk bi egunetatik behin izanen dira. Astean behin, aldiz, larunbat goizean, hitzaldi bat emanen zaie, oraingoz programa honi atxikiz: 1.—Euskararen jatorria. 2.—Ahozko literatura. 3.—Literatura Idatziaren Hasiera (1545). 4.—Sarako eskola. XVII mendea. 5.—"Ilustracionismo" delakoa eta XVIII mendeko literaturaren berpiskundea. 6.—XIX Literatura Mugimendua. 7.—XX Mendearen hasiera. 8.—Euskal Literatura gaur egun. 9.—Euskal Linguistikaz zenbait ohar.

Hain zuzen, ikastaro honi hasiera eman gurarik —eta ondo eman gurarik gainera—, joan zen larunbatean, hilaren 2an., Aita Villasante izan genduen Eibarren, "Escuela de Armeria"n bertan. Han ziren ere, Juan San Martin, Jose Luis Lizundia, Jose Antonio Arkotxa —"Atxukale"-ren seme eta Eskola bertako Irakaskintza Arduradun— eta Abilio Gregorio, pedagogia irakasle.

Juan San Martinek Euskaltzainburua aurkeztu ondoren, Aita Villasantek zenbait burutapen eskaini zien han bildu ziren ikasleei. Beste edozenbat ihardunen artean, arrastxalotu zuen eibartar gazteriaren euskal kontzientziaz jabetze hura, esana dugunez ikasleek berek nahi izan bait zuten ikastaro hauk antola zitezen. Asmo bikain honi hel diezaiotela kementsu eskatu zien Aita Villasantek, bihozkada batetan gera ezik, fruitu eta ondorio oparoak eman ditzaten.

JAUNAREN DEIA

Garai onez jaso genduen Lazkanoko beneditarrek argitara eman ohi duten Jaunaren Deia izeneko aldizkariaren 40garren alea. Isidor Baztarrikaren zuzendaritzaren pean lau zenbaki ateratzen dira urtearen barrena. Honako hau aurtengo hirugarrena dugu, tea "Sendotzako Sakramendua"ri dagokio, bost punturen arauera: Ritual berria (I. Baztarrikak), Irakurgaiak (A. Apaolazak), Teologi alderdi batzuk (B. Muxikak), Adina (J.M. Zabalak) eta Prestaera (E. Muxikak).

Bost azterketa hautaz gainera, Sendotzako Sakramenduari dagokion Irakurgai Testo eta Kantu zenbait biltzen da azken ale honetan.

Bestalde, gaiaz aparte, zenbaki guztietan ohi denez, euskal nahiz erdal liburu zenbaiten berri ematen da azken aldean. Euskarazkoei dagokienez, ez dira aipatzen argitaratzen diren guztiak. Eta ez argitarapenen bat edo beste "deabrukeriatzat" dutelako, argitaraldiek bidaltzen dizkietenak bakarrik aipatzea erabakia dutelako baizik.

Ez goaz gu erabaki baten edo besteren aurka, ez eta hartaz mintzo ere. Baina, dena den, guk ere sail honetan horrenbeste eginen bagendu, ez genduke Jaunaren Deia sekula aipa ahal izanen.

XELEBREKERIAK

Jakin dugu Bilbaon eratu den jaialdi baten berri. Hona hemen hor zehar zabaldu diren txarteletan irakur ahal izan duguna, hitzez hitz: **"Aize-Errota** Ikastolaren alde Euzkal Kirolaren Lenengo Jai Eguna. Eguna: Zemendiak 26/Noviembre. Tokia: Fronton Club Deportivo Bilbo'n. Ordua: Goize'ko 11'etan. Jokaldiak: Urresti-Rojo AURKA Fraile-Larrinaga".

Hauxe hau euskara jator eta herrikoia. Amaika ikusteko jaio ginen!

● **Joan zen hilean, Bilbaon bertan, jaialdi bat eratu zen Santiago Apostol antzokian. Gasteizko "Araba" kanta taldeak eta Bizkai-ko bakidekiñaren alkartasunak hartu zuten parte.**

"Bakidekiña" zer den diozu irakurle? Zer dakit ba nik... auskalo! Dena jakin behar ote dut ba?

● Basauritik berri xelebre bezain harrigarri bat datorkigu. Bertako presondegiko leihatilatxoan honako txartel hau irakur daiteke: **Se prohibe pasar camisas de cuadros.** Hau duk ona hau!

● **Korreoz hartu dugu Argentinatik, Buenos Aires-ko** Centro Ricon Vasco-Euzko Txokoa **delakoak argitaraturiko IRINTZI aldizkaritxoa. Aldizkariaren beraren izena eta GORA TA GORA hasten den kanta ezagun bat ezik, gainontzeko guztia gaztelaniaz soilik idatzia datorkigu.**

Txaloak jo eta "gora, gora"... horrela jai diagok mutilak!

DENETARIK

Azaroaren 26an. Bizkaiko Larrean eratu zen "Olerki Egunean", Martin Ugarte "Saletxe" legazpiarrak irabazi zuen poesia saria. Ez da lehen aldiz, "Saletxek" sariketa honetan parte hartzen duela, ez eta irabazle ateratzen dela ere. Aurten, **Etxera begira** deritzan laurogeitaka ahapalditako bertso sorta batez atera zaigu irabazle. Zorionak.

● **Hilaren 2an. Salvatierrako (Agurain) Agurain Antzokian Euskal Kanta Jaialdi bat eratu zen. Bertan ziren "Ez dok amairu" taldeko Lurdes Iriondo, Xabier Lete eta Benito Lertxundi kantari guztiz ezagunak, bai eta Gorka Knörr kantari on bezain idazle fin gasteiztarra ere.**

● Arabako Diputazioak 200.000,— ptako. kredito bat eskaini die I Nazioarteko Dantza Jaialdi delako antolatzaileei. Pozgarri da, nahiz eta —egia esan—, dantza jaialdiak baino beste zenbait kultura eginkizun premia gorriagotan egon.

● **Barakaldon haurrentzat liburutegi berezi bat muntatzeko asmotan ari omen dira. Barakaldon ezezik, herri bakoitzean behar genduke halako liburutegiren bat, gazteria harutzarotik irakurtzen zale zedin.**

● Abenduaren 4ean. Kardaberaz idazle-eskolakoek izan zuten ohizko saio hoitako bat, Pedro Berrondo, Ambrosio Zatarain eta Manuel Lekuona irakasle zirelarik. Manuel Lekuona, hain zuzen, "-a" artikulua Orixeren idazkeran aztertzeko zen.

Larresorok **Orixeri** buruz astekari honetako 500 alean idatzi zuen artikulu luzeak izan du geroztik ondorio ugaririk. Ez gara orain hartaz gure iritzia ematen hasiko, baina bai ordea esan, egiazko sortzailerik ez duten aldizkariei aukeran-maukeran etorri zitzaiela harako artikulu gordina, aleren batzutan zertan idatzi izan bait dute. Ez da guti.

AMATIRO

(c) Ministerio de Cultura 2005

Gure Txokotik

IRLANDAN GERO ETA GOGORRAGO

Ipar Irlandaren egoera dela eta amaika lan idatzi da azken aldi honetan. Gure aldizkarian bertan D. IZAk Azaroaren 26an Ipar aldeko Irlandaren irtenbideak aztertzen zituen. Irtenbideak zabaltzeak lanak emango ditu. Oraingoz bai gobernuaren erasoz baita IRAren erantzunetan gauzak gogortzen doazkie. Bestalde McStiofain beren aintzindarien espetxeratzeak sutan zegoen labea gorigori iplni du. Bere etengabeko gose huelgak, agerkundeak, IRAk aurrerantzean lehengo bideari, gogorkiago beharbada, jarraituko diola erakusten du.

PORTUGAL LEHENEAN

Portugalek O.N.U.k egindako eskabideari, hots, Afrikako «bere» lurraldeetan askatasunaren alde burrukan diharduten indarrekin elkarrizketan has daltezen egindako deiari, erantzun dio. Lehenean jarraiki erantzun ere. Ez dute filosofia pentsaera berritzen denbora askorik galdu.

Azaroaren 23an, gobernuko nazioarteko harremanetan arduradun batek hauxe erantzun du: «O.N.U.k ez du estadu barruko gorabeheretan, eginkizunetan, sartzeko eskubiderik. Bere gogoa erakus dezake baina ez daduka hori egindu gisa ezartzeko aginpiderik. Lurralde horiek Estadua osatzen dituztenak dituzue, hots, bertako probintziak alegia». Askatasunaren alde lanean dabilen jendea minoria bat besterik ez omen da, eta hori inguruetako estaduek dituzketen interesei jarraiki egindako burruka, noski.

Han ere, herriaren alde diharduten apaizak espetxeratzen ari dira. Beste norbaitek irakatsiak ongi ikasiak dituzte nonbait portugaldar agintariek ere.

GAULLISMOA ARTESITZEN?

Frantzian auteskunde giroan murgilduz doaz egunetik egunera. Bertan bi frente osatuko dituzte nabarmenkiro. Egungo agintariek, gaullistek alde batetatik eta ezkertiarrek bestetik.

Auteskundeei begira halamoduzko frentea osatuko badute ere, ez dator bat gaullismoaren interpretazioarekin. Denek De Gaulle militarraren izena ahapean erabiliaz nork bere iritzia sendotu nahi dute. Gazteria, adibidez, haserre dago gaullismoak daraman jokabidea ikusita. M. Dominique Gailet aurkeztuko dute gaullismo barruan eragin biziago, dinamikoagoa proposa dezan.

Ezkertiarrak gazteriaren autarki bila dabiltza, baina oraingoz hemezortzi urtekoek botoa ematerik ez dute izango.

Binbitartean, inflazioaren problema, salneurrien gorakada, nehork ez du aintzakotzat hartu nahi.

DENETIK ZERBAIT

Oraindik orain V.N. aldizkariak emigrazioa dela eta estudio bat azaltzen digu bere 858 garren alean. Ekonomi dato batzuk agertarazten dizkigu. Dirudienez euskaldunok gaituzue iudi hontako aberatskumeak. Euskalaerria izan balt da emigrazioarentzat gertu izan duten aterperik «egokienetakoa».

Besterik ere gogoan har dezatela eskatuko genduke. Urtero ipar aldetik doazkigun bi mila gazte ez ote ditugu euskaldun? Daramagun deskapitalizazioa ikusita non gertuko ote digute euskaldun emigranteen aterpea? Estudioak egiterakoan objetividade haundiagoa eskatuko genieke.

LABUR

—Tarancon kardnealak aditzera eman duenez, Estaduarekiko harremanak loturarik gabeko lankideenen antzekoa beharko lirake.

—Agintariek ezagutarazi dutenez ertzain gehiagoren beharra omen dago ordena eta zuzentasuna zaintzeko. Materiala aldetik eraberritzen ari omen dira. Zer ikusteko gauden...

—«Unibersidadea dugu gizarte giroaren ezaugarri nabarmenena». «Pozgarria da gazteria gizarte antolaketaz kezkaturik ikustea... eta bide zabaletik abiatzen bagera, eta orduan bakarrik, konponduko dira gaur egun eskuartean daduzkaten arazorik nagusienak». Infantes Florido gotzaiak bere agirian esandako hitzak.

MIKEL UGALDE

TEORIA

IV Hiru haro, bost aurpegi

Inperialismoaren bizitzan, hiru haro edo mende nagusi bereizten ditu Galtung-ek.

"Ama Aberri" haroa, deitzen dio aurreneko haroari. Aldi honetan, Erdikoak, hau da, erresuma inperialistak, Periferiako Nazioa, hau da, herri azpiratua, bere "altzoan" hartu nahi du. Horretarako, hori lortzeko, "Ama Aberri" deritzan ideolojia sortzen du Erdikoaren egiturak.

Izan ere, herri atzeratu nahiz herri Koxkor batek, nolaz arbuia eta uka dezake Erresuma Handi eta Nazio Unibersal batek eskaintzen dion amatasuna eta babesa? Herri ttipi hori bera ere orokor eta unibersal bilakatuko bait da, bere koxkortasuna garaituz eta Erresuma handiaren familian sartuz. Horrelako ukaziorik gerta baledi, historiaren mugida atzeruntz bihurtu nahi izatea litzake.

Beraz, seme galdua, besterik ezean, indarrez eta bortxaz erakarri beharko litzake, familia handiko batasun ederrera.

Hau izan da, Galtung-en iritziz, inperialismoaren lehen haroko ideolojia. "Erdikoak", ideolojia honekin batera, hedatu zituen herri azpiratu eta kolonizatuetan bere indarrezko sareak.

Lehen haro honen eredu, Bretaina Nagusia jartzen du Galtung-ek. Bretaina Nagusiak, bere politiko, soldadu eta merkatariak bialtzen zituen kolonietara. Kolonietako gizarte-klase indartsuenekin bat egiten zuten, eta horrela herri kolonizatua Inperio Handiari atxikia gelditzen zen.

Bigarren haroa, neo-kolonialismoaren haroa da. Gaurko inperialismoaren barnean, forma hau, neo-kolonialismoa deritzana, munduko eskualde askotan agertzen da. Herri anitz politika kateetatik askatu dira, beren Estadu eta Gobernuak eraiki ahal izan dituzte. Inperialismoaren egitura oro ez da, haatik, "kolonia izandako" herrialdeetatik aldendu. Politika aldeko katigua, nahi bada, galdu da, itxuraz. Lehen Erdikoa eta Periferia, guztiok bat ziren, hots, Estadu bat eta berbera ziren. Orain, Periferia zena, Erdiko, hobeki esan, norberaren Buru bilakatu da, askatasun "politikoa" erdietsi bait du.

Neokolonialismoan, halabaina, ekonomiako eta ideolojiako inperialismoa ez da galdu, itxuraz aldatu baino ez da egin. Neokolonialismoak zera du berekin, antzinako koloniak biguinkiroago, zailukiago, azpian edukitzeko era eta molde berria.

Antzinako Erdikoa edo Metropolia, aurreratuagoa izan ohi da, bai ekonomian, bai jakitatean. Horregatik, "laguntzen jarraitzen" dio lehenaldiko bere kolonia izanari. Diru-prestamenak egiten dizkio, baina "prestamen katigatuak" deritzatenak. Alegia, diru-hartzailea, behartua eta lotua dago aurreratzen zaion dirua, prestatzaileak agintzen dion merkatutan eralgitzera. Ez du, nahi duen edo komeni zaion lekuan gastatzeko aukerarik. Horrela, lehengo kolonia-politikoak, oraingo kolonia-ekonomikoan jarraitzen du.

Baina, dirua prestatzen duenak, bahia eskatzen du aurrez, edo hobeki esan, bahia ematen zaion neurrian prestatzen du. Zein da ordea (gauzak nagusikiro begiratuz), prestatzaileak eta laguntzaileak eskatzen duen bahia?

Lehen esan dugu, antzinako Metropoliek "jakitate aurreratuagoa" daukatela herri txiroek baino. Eta zertan mamitzen da eta agertzen da aurreragotasun hori? Erresuma handiek beregan duten sisteman, erakundean, hazkunde-ereduan...

Beraz, zer bahi ederragorik eta bidezkoagorik, "hartzaileak emailearen bidea" ontzat hartu eta jarraikitzea baino. Horrela gertatzen da, "herri atzeratuetako" tekniku anitz "Erresuma aurreratuetan" hezitzen eta jakitatez hornitzen dela, gero beren aberrietara "eredu ikasiak eta sistema praktikoak" eramateko.

Zer esanik ez dago, "sistema eta eredu" horietan. Erresuma nagusien ideolojia muinetaraino sartua aurkitzen dela, nahiz, ideolojia, agertzen ez den gauza ixil, gordea eta eraginkorra izan.



«... eta horrela, herri kolonizatua Inperio Handiari atxikia galditzen zen.»

Hara, beraz, Galtung-ek, gaurregungo inperialismoari "neo-kolonialismo" deitzen dionean, esan nahi duena. Antzinako Erdikoa edo Metropolia, itxuraz aldatu egin da, politika-mailako itxuraz, alegia. Baina antzinako koloniak katigatuak jarraikitzen dute. Izkutuagoko lotura ekonomiko eta ideolojikoez katigatuak eta menperatuak bait daude.

Galtung-ek uste du, inperialismoaren hirugarren haroa ez dagoela urruti. Herri azpiratuek, oraingoz, egitura ekonomiko-ideolojiko aipatuok jasaitea beste erremediorik ez omen dute. Ez, ordea, luzaroan, dio Galtung-ek.

Aurki, gauzak gauzatzen datozen arabera, salatua eta biziro kontrakatua izango omen da, egungo "emaitza ekonomiko", "laguntza ideolojiko" eta neoinperialismoaren ekintza oro. Ez omen du, haatik, inperialismoak etsiko. Iraupen-bide berririk asmatzen, ikusiko omen dugu.

Inperialismoa aurpegi askotariko hidra bat omen da: ekonomikoa, politikoa, militarra, kulturala... Buru bat eta beraren aurpegiak dira guziak. Aldi batetan, aurpegi batzuk ageri dira argitan; besteak, aldiz, aurpegiz eta jokuz aldatzea komeni denean.

Aurpegi edo alde guziak, halabaina, egitura berberarenak dira. Horregatik, inperialismoaren aurkako estratejiak ez du alde-bakarrekoa edo atal batekoa izan behar. Gaitza egiturazkoa denez gero, borrokaren estratejiak ere bere egitura eduki behar du. Hau da, alde eta saihets guztiak kontutan harturik pentsatu eta jokatu beharrekoa da.

G. ANSOLA

Ez Merkenak
Bai Onenak!
Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Olek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.
FANDERIA
ERRENTERI

Baserriaren alde
EUSKAL ETA ERDAL

Caja de Ahorros
Municipal de San Sebastián
Banen baneko azikay
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru
aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira joan
etorriak

FAGOR
edaria
epela dagola?
FAGOR'ek
oztuko
du bereala

(c) Ministerio de Cultura 2005

Kristau, baina baita euskal gazte

Gaur egunean euskaldunok eta batez bere gazteok ahoz-aho darabilguzan gai batzuk aspaldi honetan indar barria hartu dabenak dira. Holan gaur, langilea, politika-ekonomi jperak, euskera, zapalduak eta zapaltzaileak, erlejioa.

Zergatik hau? Gizarteak eta gizonak lehena gainditu nahiean, aurrera jo nahiean, ikuspegi barriak zabaltzen ditu, gizarte ta giza moldeak aldatu.

Hola dala, gaur egunean bizitzaren alderdi guztiak giza baloreen sensibilizazio indartsu baten bidez aldatu eta erabarritzen doaz. Gizonak, nolabait esateko, txikitu eta lotu egiten izan daben moldeak astindu eta bere inguruan molde barri batzuk asmatu nahi ditu, etorkizun zabal bat agertuaz.

Euskaldunon artean bardin jazotzen da. Euskaldunok aurrera jo nahi dogu, gizarte molde askatu batzuk, geure nortasuna eta kulturea landu.

Prozeso honetan guregan balore asko indartzen doaz: euskal nortasunaren eta kulturaren balioa eta lantzea, euskaldunen anaiartekoa eta nolabait batasuna autortzea, ekintza askatzaile bat, hitz batean, euskal kontzientziaren kezka indartsua sortu da.

Giza baloreen esnatze eta berbizte hau aurrerakuntza da. Baina arrisku bat daukagu: Mundu barri bat sortzen dala eta asmatu egin behar dogula ustean, lehengo balore batzuk baztertzea, ezerezetik hastea. Egia esan, arlo zabala irekitzen jaku ikuspegi barri honetatik, baina dogunetik, gareanetik hasi eta, ahal dan neurrian, doguna gaurko ikuspegi barri honetara moldatu behar dogu.

Horregaitik gaur egunean ekonomi-politika egitura, gizartea eta baita erlejioa ere kritikatzen ditugu, gaurko giza baloreei begira ez tajutzen direalako.

Erlijioa eta fedea bere, sendo astintzen doguz. Ulertzeko era errezago batean azaldu, euskal kristauentzat esanahi bizi eta eraginkor bat izan, eleizegitura aldatu eta eleiza herriratu, herri gizonen kezketan parte izan: Gehienen kritika hemendik doa.

Badira gaur egunean euskal gazteen artean heuren biztzan gizatasuna, hau da, euskalduntasuna eta kristautasuna alkar ezin konpondu dituenak; euskal ekintza baten jartzerakoan, fedea alde batera baztertzen dabenak, heuren euskal bizitzarako ez daualakoan eraginik eta sentzunik, edo esanahirik ez dauan lehenagoko mundu bat gogoratzen deutselako. Batzuk euskal gizon askatu barri honen izenean, fedea ukatu egin dabe.

Gu euskal gazte batzuk gara ta gainera, abadegaiak. Gu ez ginan bakoitzaren guraritik sortu. Euskal kristau famili batzuetan jaioak eta giro honen bidez Seminariora etorriak gara.

Urteak joan eta giza baloreen esnatze ongarri honek eraginik, Seminario heziketa moldeak aldatzen goaz. Gau egunean giza osokuntza garrantzi handiagoa dau eta Seminario Nagusi eta Kolejioko heziketa metodoak helburu honen inguruan asmatzen dira: giza osokuntzan abiatuaz, era berean fedea galdetu ta sakondu. Kristau, baina baita gizon ere.

Askatasun giro bat zabaltzen goaz eta era berean bakoitzaren bizitzan sortzen diran giza eta kristau galdera eta problemi erantzun batera ahalegintzen, giza eta kristau osokuntza helburu dala.

Giza eta kristau heziketa ez da Seminarioko zerbait bakarrik. Guk Seminarioan kristau komunidade bizitza daroagu eta ikasi egiten dogu. Gure heziketa Seminario eta kale edo baserri bizitza da, gazteen artean, gizonen artean, heuren kezken artean. Heziketa gure bizitza osoa dogu.

Gaur gure Seminarioko giza eta kristau heziketa honetan garrantzi handia dau euskal kontzientziaren esnatzeak ta sendotzeak. Holan, euskera klaseak, euskal ikastaroak, euskal problematika giro bat azaltzen doa.

Gaurko giza baloreen, eta gure artean euskal baloreen itzartze hau heldu da gure bizitzetara ere, eta giro legez gure gazte ta kristau komunidadera.

Gainera guk gure ikasiak besteei emotera behartuak gagozala uste dogu, euskal baloreen esnatze onuragarria lantzera eta eragitera. Hau dala-ta, euskera klaseak emoten, euskal gazte taldeetan parte hartzen eta abar hasi gara.

Baina, fededunak garean ezkero, gure fedea gaurko giza baloreei egokitu behar dogu, gaur eta guretzat esanahi sendoago bat izan dagian. Guk gure fedea gaurkotuta azaldu nahi dogu.

Kristautasuna, erlejio legez, gizonak ezin dau menperatu, gizonaren eskuetan ez dago —alde batetik—: norbait guztiz bestea autortzea da fedea. Hau holan danez gero, gaurko giza baloreen sensibilizazio giartsu honetan, fedeak ba ete dau tokirik? Gaur egun gizatasuna ta kristautasuna sintexis batean alkar konpondu ahal dira gaurko gizonagan, gizon kontzientziatuagan? Ez ete dira alkar ukatzen? Galdera honeik gaurko gazte batzuen bizitzakoak, baita bere gurekoak, dira.

Kristau batentzat sintexis edo batasun hau konpontzea edo honetarako bide bat zabaltzea, ezinbestekoa da. Bestela bere bizitzan mundu bi alkar lotu ezinak ikusiaz, gizatasuna azkenean garaile atarako da eta kristautasuna baztertu. Kristau osokuntza bitasun honen sintexian dago.

Gure bizitzetan kezka bizia da hau. Bidea irekitzea, baiña batez bere jarraitzea, gatx egiten jaku, oztopo asko dira bitarteko ta illuntasun handi bat. Kristautasuna gaurko ikuspegi barri batean sakontzeko. Ebanjelioetara jotzen dogu ta jo behar dogu. Kristo gizon legez azaltzen jaku heuretan, gizonaren izatea onartuaz eta gizonen arteko maitasuna autortuaz. Kristo ezagutzera abiatzerakoan, gizon heredu legez bakarrik hartzeko arriskua daukagu, Kritos pobre ta behartsuen alde, maitasuna agintzen, gaurko hizketan «iraultzaile».

Baina Ebanjelioa fededunen lana da; Kristogandik bere testiguak jasotako bizi-esanak. Kristo gizon, baina Jainko egiteko batean, gizonari itxaropen iraunkorra emon nahiean eta hortarako Jainko bidea erakutsi nahiean. Hitz batean, Jainko-gizon, gizonarekin alkar-hizketan; Jainko-gizon sintesis batean.

Kristok bere salbamen bizitzan gizontasuna onartzean eta jasotzean, gizonagan sintesis hau posible egiten dau eta bidea erakusten deusku. Kristauak ez dau gizona ukatzen, goratzen baino.

Hau da gaurko gure kezka, gaur erlijioak daukan kezkarik sakonena eta Kristoren salbamen historiaren muina.

Hau dala ta, Gure Seminario bizitzako giroan dei bat egiten jaku Kristo biztzera eta sakontzera, otoitzaren bitartez eta Ebanjelioetara joaz.

Baina gainera dei bat kristau ekintza berezi batzuetara, euskal ekintza konkretoetara. Euskaldüna izateko ez da fedea beharrezkoa, baina «euskal kristau batek kontuan izan behar dau bere inguru».

Gu kristauak gara ta gure ekintza kristaua, mota askotakoa izanarren: euskera klaseak, gazte taldeak, kristau katekesia... Gure fedeak eraginik, ezinbestekoa dogu gure bizitzetan euskal ekintza batean jartzea, Kristo azaltzea eta agertzea. Ez dogu fedea baztertzen giza ekintza baterako, guretzat dana, Kristori esker, kristau ekintza danez gero.

Hona hemen gure Seminario eta gure kristau bizitzetako egoera ta prolemak gaurko munduko prolematika giroan eta «erantzunaren zai».

Derioko abadegai batzuk

Euskal Kultur mintegiak Deretxoko fakultadearen lankidetasunean antolatu du ikastaro bat.

Irakasle: Adrian Zelaia (Deretxoko irakasle)

Gaia: Derecho Foral de Bizkaia

Hizkuntza: erderaz

Egunak: 11-12-13-14 eta 15.

Ordua: arratsaldeko 7,30 etan

Lekua: Unibertsidadeko Sala de Conferencias

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopeitia

Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

(c) Ministerio de Cultura 2005

Euskal Gaietan Barna

HITZALDIAK GASTEIZEN

Ramuntxo Kanblong injinidore elektroniko gazteak oso hitzaldi interesgarri bat eman zuen Gasteizen Azaroaren 11an. Zaila izanen litzake oso Konblong-ek esanak honera biltzea. Baliteke ordea Zeruko Argia beronetan zenbait artikulutan ematea.

Ramuntxo ez da, karreraz, arestian esan dugunez, ekonomilari. Parisen ikasten ari zen garaian, bazen bere herriko arazoetaz kezkaturiko euskaldun ikasle-talde bat.

Arlo honetaz esana naiz, Iparraldeko arazoen artean, ekonomikoa dela nagusia. Beraz Ramuntxok ekonomia ikasteari ekin zion, gure herriko ekonomia aztertzeko asmoz, hain zuzen. Honetaz zenbait lan argitaratu du, Iekinen batez ere.

Ramuntxoren ustez, baziren antzinatean, lehen karlistada arte, harreman hertsiak Euskal-Herriko ipar eta Ego aldeen artean, ekonomiko muga ez bait zen Bidasoan, Ebron baizik. Frantziako iraultzak eraginiko departamento-banaketarekin lehenik (frantses nazionalismoaren kriterioaz, naski), eta lehen karlistadarekin bigarrenik, harreman ekonomiko horiek eten ziren.

Harrez geroztik, Iparraldeko ekonomia gero eta okerrago. Gaurregun, aldiz, iparraldeko gazteek bere herrian gelditu nahi dute. Nolaz, lanik ez baldin bada; Laborantzan, nekazaritzan, experinetzia onak eginak dira, baina, zorigaitzez nekazaritzak bizibide, ogibide gutti ematen du, sortzen du. Industria behar dute Iparraldean.

Zer-nolakoa izanen den (hau garrantzi handikoa baita, Egoaldean gertatu den debelopa edo desarrollo anarkiko eta kaltegarri gerta ez dakien), hori ikusiko dute.

Baina hori bai, industria behar. Hortarako bere jestioak bere ahaleginak eginak dituzte; badute batzorde, erakunde bat edo beste, Cámara de Comercio direlakoek, alkateek eta abarrek parte hartzen dutelarik. Laster hasiko omen dira zenbait lantegi berri Doniane Lohizune inguruan kokatzen.

Gauza hauetaz beste artikuluren batean mintzatuko gara. Aipa ditzadan, ordea, beste bi gauza, garrantzi handikoak.

Lehenik, Kanblong mintzo zitzaigun Akize-Baiona-Bilbao ardatz edo "eje" ekonomikoaz. Honi, garrantzi handikoa deritzagu, gure herriko debelopa edo desarrolloari begira. Egin ere egin dezagun kontu ezen gure herriko iparraldetik gora, Bordeleraino (Burdeoseraino) ez dagoela kasik ezer, oihan handi-handi bat ezik. Beraz, argi eta garbi dago, gure herriko iparraldeko ekonomiak gurekin harremanetan sartzeko joera eramango duela. Horregatik garrantzi handikoa, ardatz-ekonomiko horri begira egotea. Azken bolada honetan zeharo nabarmena da Donostiako irratiak programazio gehiago ematen dutela frantsesez. Zerbait badago, beraz.

Eta, gai hontan sartuz gero, ohar bat egin nahi nuke. Azaroaren 30ean hasia da Donostian hitzaldi (eta mahai-inguru) sail bat. Gaiak (gutti goiti beheiti, ezpaitut egitaraua eskuratu ahal izan): gure problema ekonomikoak Merkatu Batuan sartzeari begira, Finanzazioa eta Hirigintza (Urbonismoa). Goi-mailako hizlariak etorriko zaizkigu. Hiru astetan ematekoa da hitzaldi eta mahai-inguru sail hau, "Información y Turismo" deritzan aretoan. Badugu abagune gure herriko ekonomiko expektatibetaz jabetzeko.

G. KNORR

ARTE •C[redacted]

Errealismoaren Inguruan

Canogar-en agerketa dela eta, zenbait gogoeta

«Artea, gauzak ezagutzeko medio dela uste badugu, itxuragabekoa da politika edo ethika arazoetan sartzen den artista salatzea».

Antoni Tapies

1.—ARTE ETA ERREALITATEA

Asko hitzegiten da, Artean «Errealismo» berria sortzen ari dela eta. Duela zenbait hilabete egin nuen komentario ttipi bat orri honetan bertan (ikus Z. ARGIA 479 zenbakia) eta, ene ustez, Kassel-en Dokumenta ondoren, aurtengo udan Alemanian «errealitateari galdekizuna» izenez egina baituez da probeta izan beharrik, Arte alorrean errealismo aireak berriro datozela agertzeko. Bestalde, Canogar espainiar pintoreak Barcelonako Adriá galerian egin duen agerketak, zenbait gogoeta eragin dit, zein zuri, irakurle horri, adierazi nahi baitizut.

Abstrakto pinturan 50 urte egin ondoren, eta mundu osoak informal dena ontzat hartu edo egiten duenean, horra non agertzen den arte-kondairako errealismorik errealena, pintatzeko argazkiaz baliatzen dena ez, baizik argazkia egiteko pinturaren medioz baliatzen dena, Garhard Richterek dion bezala.

Zenbaitek galda dezake: bainan oraindio errealismoarekin ahal dabiltza, bada, jiraka? Ez ahal da garaituriko gauza? Ez ote arte oro nola-hala errealista?

Moreno Galvan-ekin neu ere bat nator, artean —politikan bezalatsu— ez dela deus ere garaitzen ez gainditzen; beste ikuspundu batetatik birsortu egiten dela, betiko galderei erantzun ezezagun eta sekula jakin gabekoz ihardesten zaiela (bestela, ez bailitzake arterik, Txillidak dionez). Arteak, egun eta betidanik, egin nahi duena —errealista nahiz abstrakto izan— zera da: errealitatera hurbildu eta nolabait atzeman.

Bainan denok dakigu —Arte Kondairaz— mintzaera batzuek besteek baino hobekiago adierazten dutela errealitatea. Zer da, ordea, ERREALITATEA? Horra hor galdera nagusia, pintura abstrakta edo surrealista onartzerat batzuk eta besteak zapuzterat bultzatzen dituen galdera. Tapies-en kuadroko orma-zatia bezain erreala baita Ibarrolaren langile explotatu bat, nahiz Dali edo Miroren amets bat nahiz Mendibururen xori-kaiola bat. Ez ote, beraz, errealitatera hurbiltzen den zenbait mintzakera? Ez ahal da, bada, mintzakera oro nolahala erreal eta egiaren irudi?

Egia esan, artistik mintzakerak berak —esannahi bikoa baita— bere mamia traizionatzen du; bainan, hor dago, kritikoek eta herriak onartua. Gaurko egunez, edonork deritza abstrakto edo idurizko, edota errealista, errealitatea nolabait adierazten duen edozein mintzakerari.

Horregatik diot, «errealitate» hitzaz bakoitzak zer ulertzen duen jakitean dagoela kakoa, neurtzen nahiz ukitzen ez dena edota muturraren aurrean ez duena erreal eta egiazko dela ukatzen baitu zenbaitek. Eta hala dago mundua dagoen bezala: pragmatikoz, ekonomistaz, bankeroz eta lapurrez betea eta artistaz, poetaz eta musikoz hutsa (eta halakorik badadi, erotzat eta zorotzat jotzen da edo espetxeratzen, beren estetika-politikaz gogait eta molesta ez dezan).

Mintzakeraz ari garenez, esan dezagun artean edozein mintzakera on dela (nahiz figurativo nahiz abstrakto, baldin eta erralitatea ederki adierazten badu, hau da, jokuaren arauz egiten badu). Bai eta esan dezagun, betidaniko eta egungo artearen erroetan, oinarrian, Immanuel Kant-en deutsch-idealismoa dabilela.

Gaur, inoiz baino gehiago, artistik ezaguera eta errealitatearena aztertu nahi da. «Gauzen izatea atzematea da ezaguera». Kantek frogatu zuenez, ezaguerak ni baitan atzematen ditu gauzak, diren bezalakoak ditut ikusten diren bezalakoak, niregan. Eta hori, bai egunerako errealitatea aztertzen dugularik bai pornografiak, publizitateak, zinemak eta telebistak, politik propagandak, sozialist errealismoak edota norberaren mitologiek heskaintzen diguten errealitatea aztertzen dugularik.

Egiatan axola duena zera da: eman dezala arteak errealitate dena, ez du axola honen ala haren antza duenentz. Horra, bada, zergatik bizi diren batera mintzakera biak, abstraktoa eta figurativoa, bere indar osoan.

Gogoeta nahasi honen haseran esan dut, egun berriro (eta «berriro» diot, harat-honata historikoa baita: idealismoa-realismoa, intelektualismoa-irrazionalismoa, zenbaitetan ilun eta dialektiko bada ere) errealismo aldera dela haizea mugitzen, mila eratara. Kassel-en Dokumentan zinearen eta telebistaren, kazetetako irudien eta filateliaren, imprenta eta mekaniko tresna guzien eraginaz mintzatzen da.

Zergatik orain errealismora berriro?

Inozoegi litzateke —dio Maria Luisa Borras kritikoak—, errealismora itzultze hau galeria eta arte-marchand edo arte-obra salerosteko gauza duten horien joku eta iruzur zorrotzatzat jotzea. Inozoegi eta zuzena ez, gauza sakonagorik ikusten baita.

Estadu Batuetatik datoz errealist aireak. 1920an, lehen gudatea ondoren, bere baitan bildu zen nazio hura eta artean progresisimo zitekeen guzia baztertzen hasi. Bainan egungo errealistek eta hiperrealistek ez dute deus jakin nahi «tradizionalista haiekin» eta horien errealismoa beste tankera batetakoa da. Bainan, errealismoa berritu egin da eta gure artean indarra eta kalitatea hartzen ari da. Horra hor, adibidez, Canogar.

2.—CANOGAR ETA SOZIAL ERREALISMOA

Beti aldatzen eta iraultzen ari den gure munduan, ez da harritzeko bizi duen errealitatetik hurbilago dagoen eta kaleko jendeak aisago ulertzen duen mintzakera hartzea artistak: sozial errealismoa. Honek ez du ukatzen beste zenbait mintzakera daitekeenik, abstraktoa, adibidez, errealitatea hautsi nahiz.

«Urteen joanean izen berri eta errespetagarriek (klase-borroka, masaren ekintza, arraza-istilua, herri batek bestea menperatzea, sindikal borroka) hartu dituzten zekenkeria, bekaitza, haserrea, gorroto eta herra —Solzhenitsyn-ek dioenez— ditugu geure egungo kulturaren ogia. Eta artista ezin egon egonean ikuspegi honen aurrean. Bere mintzakeraz eta biziaz parte hartu behar du; zeren eta, bizitzak babesten ez duen mintzakera ez baita etiko, eta estetika huts bihurtzen da. Ezin da artista bere marfilezko dorrean izkutatu eta sorgin edo fantasma munduan pozik bizi, herria merkatari eta zoroen eskuetan utzirik. «Artistak —dio Tapies-ek— errealitatea sufritu egin behar du eta inguruan duken guziaz onartu behar du, onaz eta txarraz, argiaz eta ilunaz».

Artistak bizitzaz behar du pentsatu. Garaian garaiko ideologiaren indar aurreratzaileekin lotua behar du haren obrak. Ezin da burura ere, artista bat egon daitekeenik beste jakiturietatik aparte: filosophia, zientzia edota politikatik, alegia.

Horixe dagi Canogar-ek. Gizonak gizona eta egiturak gizona zapaldurik eta bortxaturik dadukan mundua agertzen digu. Jende zanpatua eta kolpatua, puskatua, murua moztua edo gudazelaian hila nahiz karrika isil batetan botea.

Berak bizi duen mundu eta gizartear (España) loturik, Canogar-ek mundu itxi bat, ilunska bat adierazten du, teknika-kalitatete edereko mintzakeraz. Mundu soil eta expresionista horri mintzakera gogor eta oldar batek eusten dio, ez ordea mintzakera moralizante edo panfletozko bat (egungo euskal pintura batzuetan gertatzen denez, bizkaitarrenetan batikbat). Gauza-irudia, adierazle-adierazi arteko ekilibrioa nabarmena da, pintura aurrelarian askotan gertatu ohi denez.

Bide berriak ireki zaizkio arteari eta horrekin, pintura-egitura berrien bidea. Errealismoa da hauetariko bat. Bainan, noiz arte iraungo ote mintzakera honek? Zein adar sortuko ote zaio? Nork jakin? Denborak eta artistek eta —gezurra badirudi ere— errealitateak berak esan behar. Behin eta berriro, egunoroko bizitza artistari mintzatzen zaio, honek haren esannahia atzeman eta obra sortzen da; hala nola Jose Antonio Arzaren sozial poema «Amari eta izebari», Mikel Laboaren ahotsean. Arteak gaur errealismorako joera du, ikusiko duzu, irakurle.

EDORTA KORTADI

Bumper: Hiperrealismoa 1970

ESAMINARAKO DEIA

Euskal irakasle (D maila) titulua lortzeko, aurten bigarren deiko esamina (lehen deikoa Urrian izan zen), datorren hilaren azken larunbatean, Abenduaren 30ean izango da, arratsaldeko 4retan, Eibar-en, Udal Aurrezki Kutxaren etxean, «Dos de Mayo» kalean.

Eta hau iragarriaz batera aitzen ematen da, matrikulatzea Euskaltzaindiaren Etxean, Bilbon, Ribera 6ean, edo Donostiako Ordezkaritzan, Diputazio Jauregian egin daitekela, Abenduaren 23rarte. Baita ere idazkiz, Bilbora, Euskaltzaindiaren «Caja Laboral Popular»eko 198 kontura matrikularen ordaina, 250 pezeta, igorriaz eta banku «duplicado» delakoa Bulegora. Urrirako matrikulatu zirenak ez dute zertan ordaindu.

Bilbon, 1972ko Azaroaren 27an.

Euskaltzaindiak

EUSKALTZAINDIKO BATZARRA

Joan den azaroaren 24ean Euskaltzaindiak hileroko bere batzarra gin zuen Donostian, Donostiako Diputazioaren Jauregian.

Hona hemen batzarrean erabilitako gairik nagusienak:

Euskaltzaindiak bere eskerrona agertu nahi dio "La Vasconia" izeneko diru etxeari, "Euskal Izendegia" argitaratzeko eman duen laguntzagatik. Izendegi hau Starustegi euskaltzain jaunak Euskaltzaindiaren aginduz prestatua da.

Elgoibarrn Urtarrilaren 28an egingo den batzar ageriko xehetasunak lotu ziren.

Batzar hau Urruzuno idazlearen omenez egingo da, urte horretan berrogei ta hamar urte betetzen da bait da hura hil zenetik. Arrue eta Zavala euskaltzain jaunek hitz egingo dute, eta euskal irakasle tituluak batzar horretan banatuko dira.

Euskal irakasleen esaminetarako bigarren deia egiten da. Esamina hauek Eibarren egingo dira, abenduaren 30ean.

Batzorde bat jartzen da udako ikastaro unibersitarien antolatze lanetan Euskaltzaindiaren izenean parte hartzeko.

Goizeko bilkura bereziaren kontu eman zen. Goizean zuzendaritzako karguak hautatu bait ziren bi urtetarako. Villasante, Haritschelhar, San Martin eta Erkiaga izan ziren hautatuak Euskaltzainburu, Buru ordezko, Idazkari eta Diruzain izateko.

Lafitte euskaltzain jaunak txosten bat irakurri zuen Euskalerriko ipuinetaz.

Etxegintzako hiztegia prestatzen ari den batzordeko lanetaz mintzatu zen San Martin jauna. Batzorde hortako lankide lankide den Zumalabe jaunak, azterketa askoren ondoren hitzen fitxategia osatu duela gogoz entzun zen.

Eta azkenik, euskaltzain laguntzaile den Zatarain jaunak ohar batzuk irakurri zituen aditz batuko bi formei buruz.

(Euskaltzaindiaren Prensa Bulegoko Agiria).

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

(c) Ministerio de Cultura 2005



Orio

Ataun



Elgoibar

goizueta

GU ERE ZERUKO ARGIAN

Zeruko Argiatik karta bat artu dut bein edo bein nere lanak Principe de Viana aldizkarian agertu direnez gero, aldizkari onetan argitaratzea ere komenigarria izango litzakeala, alegia euskaldunek gustora irakurriko dituztela esanez.

Nik, egia esan, ez dakit euskeraz idazten edo eskribitzen, bada erriko eskolan ibilla naiz eta an ere zortzi urte bakarrik, nere gurasoak beartsuak balt ziren eta ni baño gazteagoak ziren lau senideak aurrera atera bear ziren.

Bost urtetako meza laguntzen asi bear izandu bi meza egunero lagunduz. Jornala illeko lau pezeta. Bataiotan beste sos batzuk arrapatzen nitun atautsiri aurrez nere alderdira botatzeko esanaz. Nere bizian ez naiz aztuko nere ama zenak zer nolako pozakin gordetzen zitun sukaldeko armarion katillu ezpain bat autsitako baten barrenean.

Zortzi urtetako, nere atautsi eta ondotik aitona izandu zen Lubineko denda edo saltokian dependiente bezela jendea zerbitzen laguntzen. Eskolan ez nintzen lau erregelatara allegatu. Aitak erakutsi zidan, sumar eta multiplikar nalkoak ziraja ikastea, restar eta dibidir auzokoentzat uzteko.

Oroitzen oraintxe berrogei eta amabost urte, amabost urte nituela, larunbata batez Alta Damaso Inza gure errira etorri zela gure euskera nolakoa zan jakitera, erriz erri bait zebillen euskera biltzen. Nere euskalzaletasunaren berri jakinik, don Venancio erretoreak neregana bidali zuen. Nafarro guztian euskerarik aberatsena gure errikoa zala esan zidan.

GURE ERRIKO EUSKERA

Kontatu nion ONTXARI baserriko amona zarra zetorrenean auxe galdetzen nion:

«Zenbat ardo bear duzu botilla ontan?». Eta erantzuten zidan. ORI EZ DUK BOTILLA ORI DUK LIMETA. Urenguan: «Nun duzu kortxua?» Eta erantzuna: ORI DUK TXIPOTA.

Sevelno

zumarraga

GAZTERIAREN KEZKAK

Gure ikusleku ontatik beglak edatzean, goibeltzen da, gure barrua, bizi bideak zear nabaitzen degu, gazteria taldeak, ugari, goi uste epelarekin ornituak, aruntz eta onuz, nora gabe.

Baiña... une ontan, au poza nerea! Gizonak, munduan zear sortzen diren berriak argitaratzeko asmatu dituen tresna arrigarrien bidez, berri zoragarri batek zauritu ditu nere belarri mintzak.

Berri onek dion bezala, arduradun zuzendari argi batzuek, ikusirik gaurko gazteria sail aundi baten egoera, beren baitan, erabaki dute une ontatik gazteriaren Kristautasunarekin ados, gazteria onen barru berritze ekintzari asiera egoki bat ematea.

Oiñarri izan diteke, Arantzazun, abenduaren iruan, gure gotzai agurgarriak, gazteriarekin baturik, egingo duten billera.

Goi-goiko laguntza aundirik gabe, urte batzuek badira, La Saletar gazteria apaltasunik aundienak babestu ta (Martes Cultural) bidez erriaren ta batezere gazteriaren alde jo ta kea, lanean ari dela.

Emen aipatzen degun talde onezaz gaiñera ikastetxe onetan badira beste gazte talde batzuek Jakintzaren beste arlo batzuk gizartearen onerako aztertzen dituztenak. Gure erri-esparruan urte asko dira, La Salle aundiaren semeak finkatuak daudela, giza oste aundiak dira anaidi onen babesean ezi direnak, eta landare asko izan dira gizarte mailla guztietan muitegi ontatik irten ta landatuak eta beren jokabide zuzenarekin lilluratu dituzte berekin artu emanak izan dituzten guztiak; anaidi onen babesean artutako eziera izan baita, beren bizitzaren neurkin, ta ikasle antziñekoen naia da, beren ondorengoen ezitzaille izan dedilla anaidi au.

Erriko berri emaille onen egitekoa da, anaidi ontatik kanpo, beste mailla batean Parrokiaren egapean batzen diren gazteria taldearen berri ematea.

Gure begiz ikusten degu gazteria langillea, arratsero (txikiteoa) alde bat utzita, gazteria bulartsu au batzen da arratsero bere biltokian, txistulari neskata mutil taldeak asper gabeko saioan; beste talde batzuek, kanta-kantari, eten gabeko lanean, gabon arratsean, Jaiotza bizi baten bidez adierazteko gure erritarrei, Jaio dela Pakearen eta Anaitasunaren sorburua, Sendi guraso maillan guztiz gogoko egiten zaigu gazterlaren berri ematea, eta gogo onekin ados, beste batean jarraituko degu.

AZKARRAGA

deba

ZINE-FORUN

Hamarren bat urte dira Deban zine-forun saioak hasi zirela. Une atsegin bat igarotzeko bestetarako ez da gehienentzat zinea. Baina zine-forun-eko saioen bidez ohartu ginen zinea hezketa eta kultura bide ere izan zitekeela. Zoritxarrez jendeak gauzak erraz nahi ditu eta ez du zine ondorengo elkarrizketaren nekerik jasan nahi.

Halere gogor eutsi dio lan honi gazteen elkarteak. Zinezaleen arteko elkarteak bildu ziren orain dela denbora asko ez dela. Herri asko zinezaleen batzarra izan zen. Beren asmo eta kezken berri eman zuten, oztopo eta laguntzen berri. Eskualde hontako ordezkariak zionez zinea kultura bide eta gizarteko arazoen kezkagarri bihurtzea zela elkarte honen helburu, jakin genduen.

Oso giro jatorren egin zen batzarra. Zinezale hauen lanarren garrantziaz jabetu ginen. Eta ahal genduen gegiena laguntzeko asmoak hartu genituen.

BERRIAK

Mingotsa benetan hainbat herritako ikastoletan gertatzen ari dena. Nahaspil hontan ezin gauza garbirik atera, baina isilik ere ezin egon. Ikastolak maitatu, zaindu, indartu behar ditugu. Ez dezakegu inolaz ere onar haundion ezineramanagatik umeak nozitzea. Ondo iruditzen zaigu nork bere iritziak aurrera ateratzea, baina ez umeen onaren truke.

Horregatik batpateko iskabiletan gal ez gaitezen aurrez gauzak erabaki eta lotu behar ditugu. Ez gaitezke lo lasai egon. Harremanak eta elkarrizketak ugaldu behar ditugu. Denok dugu zertaz agiturik eta kezkaturik. Denok dugu zer ikasia eta ikusia. Ikastolak ez du taldetxo batena izan behar. Ikastolak denona, zabala izan behar du. Alderdi jakin batek eskuratu gabea.

Baina horrek ez du esan nahi denok onarturiko lege batzuk eta neurri batzuk jarri behar ez direnik. Ondo erabakiak eduki behar genituzke bakoitzaren eskubide eta bete beharrak.

IDIAKEZ

txorierri

Bizkaiko Txorierri deritxon eskualdekoak bagatoz, lehenengoz ez bada ere, hemengo berri batzuk ematera, denak ezin eta.

Ez dugu, zoritxarrez, kontzientziaturik dagoen eskualdea gure Txorierri hau. Orain bizi geran lezorro hontatik urtetzea nahi bada, nahiko lanik egin beharko. Eta bide hontan ari dira, gaur aipatuko ditugun alfabetatze kanpainak. Goazen, ba, harira.

LARRABETZU

Haia dugu gazteentzako alfabetatze kanpaina. Gainera euskara ikasten diharduen erdaldun taldetxo bat ere bada. Eta umeak nagusiak baino gitxiago ez dirala eta, eurak ere fin-fin dabiltza euskara ikasten.

GOIERRI

Erandioko hauzune hontan, bizi-bizirik gordetzen da oraindik euskara. 15n bat gazte eta gaztetxoren batek osatzen dute Goi-erritarren alfabetatze kanpaina. Aste barruan ezin eta, igande goizetan izaten dituzte klaseak.

DERIO

Haundituz et industrializatuz doan herria da. Honekin batera danok dakigun ondorioa: euskararen atzrakada. Nork errua?

Derioko Seminarioan ikasten ari diran gazte jator batzuen laguntatunagaz, hainbat haurrek euskara ikasten dabe, edo, besterik ezean, euskararen alorrean sartzn dira. Lau taldetan bananduta dagoz. Bata, 8-12 urte bitarteko 22 haurrek osatzen dabena. Bigarrena, 12-13 urtekoak direnena. Eta 16-17 gaztek beste talde bat egiten dute.

Larrondo eta Loiun ere alfabetatzea hasiteko izan zan; Ez dakigu hasi diran ala ez, urrengoan argituko dugu.

KARMEL

lezo

EGIAK

—Hilabetero bezala, karta-banatzaile berria dugu; 27an estreinatu du uniformea. Oraingoz ez dezakegu aurrekoak bezain alferra denik esan, hego-haizea dabilela ta, oso garaiz ailegatzen bait zaigu

Z. A.

—Gaintxurizketarako bidea izan zena zabaltzen hasiak dira. Noiz bukatuko duten?; auskalo!

—Joan den urriaren 25ean, Ikastolako bazkideen Batzar Nagusia bildu zen eta beste gauza askoren artean, zuzendaritza eta organigrama berriak aukeratu zituen. Ohi den bezala, oso jende gutxi bildu zen, 27 bazkide. Betiko katuak.

—Aspaldion ur eskasea dugu eta behin baino gehiagotan eta batek baino gehiagok «Insalus»ekin garbitu dugu goizetan muturra.

—Odol biltzaileek kaletako paretetan ipini dituzten paperek hau diote «Necesitamos tu sangre». Agian odolkiak egiteko izango da, eta bada-ezbada ere, ez gera ematera joan.

—Pasaiako Portuko Lezoko kai berria bukatuxea dago eta komerzio harremanetarako irekl zen, duela gutxi. Oraingoz sulfatoa, egurra eta txatarra ekar-eraman dituzte.

GEZURRAK

Herriko-Etxeak datorren urterako asmo hauek omen ditu:

—Herriko Elkarte bakoitzari 100.000 pezetako diru laguntze eman.

—Ura banatzeko tuberia guzia berritu.

—Sartzekoa den jendeari (sekretari, sekretariaren sekretari, sekretariaren sekretariaren laguntzallea, e.b.) euskaraz jakitea esijitu.

—Santakrutzen eta gainontzeko festen antolaketa gazteriaren esku utzi eta presupuestoa hamarretan gehitu, aurtengia berriro gerta ez dedin.

—Kaleak berriztatu eta argi gehiago jarri.

—Estetika-Batzorde bat antolatu «rascacielos» gehiago egin ez dedin eta herriaren itxura hobetu eta gordetzeko.

Sistiagaeneko Peilo

ZERUKO ARGIA,
euskal kulturaren alde.
Egizu arpide berri bat
zure lagunartean.

BERGARAKO - II garren

euskal - kultura saioak

«AMIGOS DEL PAIS» ELKARTEKO
«IRIGOIEN» PATRONATOAREN
LANGUNTZALLEEK ERATUTA

ABENDUAK, 12
ILZARI, BENANTXIO OTAEGI
GAIA: EUSKAL HERRIKO LEHEN GIZARTEAK

ABENDUAK, 13
IZLARI, JOSE MIEL BARANDIARAN
GAIA: EUSKAL ETNIA

ABENDUAK, 15
IZLARI, GURUTZ ANSOLA ETA ERRAMUN KANBLONG
ARTEZLARI, JENARO GARATE
GAIA: EUSKAL HERRIKO EKONOMIA
EUROPAREN AURREAN

ABENDUAK, 19
IZLARI, XABIER AZURMENDI
GAIA: EUSKAL POESIA

ABENDUAK, 20
IZLARI, KOLDO MITXELENA
GAIA: EUSKAL HITZAK TA
EUSKAL HIZTEGIA

MAESTRIA ESKOLAN ARRATSALDEKO 8 ta ERDIETAN
TXARTELAK JASOTZEKO:
AMENABAR, LONBIDE ETA JUVENTUDES TXARTELA 100 PESETA.

YOGUR GURELESA GOGOZKOENA

(c) Ministerio de Cultura 2005



Alkiza



Eibar



Iruiña

Estibaliz

tolosa

Lehen aipatu genduan bezala Lizardik eratutako alfabetatze kanpainak eta euskerazko kursoak harrera ona ukan dute benetan. Danak 30-etik gora izanen dira. Jarral mutilak aurrera.

—CIT-ek antolatu berri duan abezbatzen sariketak oihartzun izugarrie izanen du alderdi guzietan. «La Gaceta del Norte» delakoan hitz horiek irakurri ditugu, Bilbao inguruko elkarteko zuzendari batek esanek. Alegia, «Tolosako epai mahaiak ez du zintzoki jokatu; etxerako begirune gehiegi ukan du noski» eta heurek lehen sarla behar zutela izan. Edozer modutara amaltzen du «datorren urtean geurekin oroituko diren esperantza badugu».

—Uzabal ibarrean aurkitzen dan fabrika batek, izugarrizko asmakizuna ukan du gure ustetan. Bagenekie Ameriketan etb. euri artifiziala egiten zutenik, balnan sekulan entzun ez duguna lurrain artifiziala inon egin dutenik. Zeozertan aurrea hartu behar guk ere eta hauxe asmatu. Geroztik oso atsegingarri dago ta poesi kutsu bat badu Tolosak.

Alegia Londresko giroa nahiz egun eguzkitsu bat izan. Lehen ibala ondatzen zuan eta berarekin arrai ta ur-landareak orain kalte hori zuzentzeko, aidea eta gizakiak.

A zer aurrerapenak! Eta guk arrazoirik ez noski. Udaletxeakexatu da Industriko Ministerioa eta erantzuna jaso ere. Honek dio: «Lurrain hori fabrikazlozko prozeso baten ondorioa da beraz eta derrigorrezkoa.

—Orain dela sei urte sortu zen LASKURAINgo IKASTOLA. Eta bat batean, ordukoa duzu LIZARDI ELKARTEA ere. Honen babesean bizi zedin eta honen laguntzarekin aurrera jarraitzeko asmoekin izan ziren biak sortuak.

Eta dakizun bezala, hala etorri dira gaurko egunetaraino, horrela behar zualako noski. Bainan gaur, zorionez, bai Laskuraingo Ikastola eta bai Lizardi Elkarteak lortu dute bere nortasuna, eta elkarrenganako laguntza kendu gabe, erabaki dute bakoitzak ber bideetatik jarraitzera: Ikastola, euskal pedagogiko laneetan, eta Lizardi, euskal kulturako bideetan.

Horregatik, ekonomi aldetik ere, garbitasuna egin beharrean arkitzen gara. Lizardi Elkarteak hilabeteko kuota bost durokoa (25 pezeta) jartzen du, eta ondo ikusiko genuke lehengo kuota «Pro-Ikastola»-ren aldekoa batere ukitu gabe, Lizardiko kuota berria onartzeaz.

Beraz Lizardiko bazkideok jakinaren gainean zarete eta erantzun jator bat emango ahal diozue bi elkarte horien eskariari.

ASKALEKU

leitze

PILLOTA TXAPELKETA

Z. Argiakoi agindu bezala Leitzeko albisteen berri ematen aaleginduko naiz. Ez dut euskeraz ongi egingo, baina ez da gutxi saiatzea bera ere. Asteko erri-arteko pillota txapelketaz asiko naiz. Leitzarrak gelditu ziran nagusi.

Iru bikote aldi saiatzen dira txapelketa ontan: bikote bat 15 urte bitarte, bigarrena 18 urte artekoak eta irugarrena 18tik aurrera. Nafarroakoa bukatu ondoren, emengo onenak Euskal Erriko beste probintzietakoekin jokatzen dute. Gipuzkoa eta Bizkaiaren aurka jokatu dute. Labrit frontoian jokatu zan azkenekoa azaroaren 11an. Azkoitiarrak eta Leitzarrak ziran nork txapela irabazi jokatu zutenak. Leitzarrak atera ziran irabazle.

Jendez betea zegoan Labrit pillota-lekua. Leitzarrez, Aresoarrez, Ezkurrakoez... bi erri auek bait dira Eizagirreren eta Bengoetxea anaien sorterri.

ERRI AZTEN ETA EUSKERA GALTZEN

Azten ari da Leitzeko erria beste erri asko bezala industria dala medio. Ugaldu egin dira eskolak ere etxeekin eta jendearekin batera. Estaduarenak ez ezik baditugu Diputazioarenak ere. Baita ikastola ere. Ez noa guzti auen azterketarik egitera. Ez naiz gauza.

Eta zer esango nuke euskera mintzoaz? Ni, 1949garrenean Leitzera etorri nintzenean ondotxo menderatzen zuten euskera bordari jendeak nola gazteek ala neska-mutikoek. Baziran tartean banaka batzuk erderara jotzen zutenak, baina geienak euskeraz mintzatzen ziran.

Kalean, berriz, erderaz 8tik 30 urte arteko emakumezkoak. Gizonezkoak berriz, euskeraz eskolameak ezik. Zorionez berriro euskerara jotzen zuten auek ere bein eskola garaia bukatuz gero.

Eta gaur zer esan dezaket? Bordari jendeaz? Gizonezkoak erabat euskeraz mintzatzen dirala. Emakumezkoak, berriz, eskola garaitik asi eta ogeiren bat urte arte ia geienbat erderaz. Kalean 1949garrenean bezalatsu.

Baina leen gertatzen ez zan beste zerbait gertatzen da orain. Industriak erbesteko jendea ekarri digu. Beste errietan ikusi degunez erbestearrak sartu diran errietan gaztelaniak menderatu du euskera. Baina onen errua ez dute gaztelaniaz mintzatzen diran erbestearrek. Geu gera pekatariak. Guk geureari eusteko ordez oien mintzora jotzen dugu errazegi. Ez dute gurea ikasteko premiarik sumatzen.

Ontan ez gera gure aurreko zaarren antzeko. Leen ere ibili ziran Euskal mugen ondoan naiz erromatar, naiz bisigodo naiz Arabeak, baina gure zaarrek tinko eutsi zioten berenari. Guk jokatzen dugun bezala jokatu izan balute aspaldi zan gure euskera museo eta artxibo zokoetan. Ez ogeigarren gizaldian, leenengo edo bigarren gizaldian, alegia.

Ikustekoa zenbaiten jokabide txepela. Zenbat senar-emazte elkarren artean gaztelaniaz. Nola oien umeak tajuz euskeraz ikas? Nola erbetsekoei irakats?

Itxurtxabal

baztan

Bagoaz gain-behera negu aldera. Zorionezko Eguberriek gainean ditugu; familien arteko egun zoragarriak denak oroitzapen hunkigarriaz beterik. "Ator Ator mutil etxera"...

Azaroako hilabetea joan zaigu eta gehiena eguraldi onarekin, hortaz ez dago kexatzerik nahiz eta beti baden zerbait arrankura. Aurten landako zitua ez da hain ugaria izan, banabarra gaizki xartexak ondatua gehiena, oso guti bildu da. Artoa ere iaz baiño gutiago baina halare bada zerbait. Hortaz jendea kexu baina sabaiak belarrez ongi hornituak baitaude gauzak bide onetik doaz. Baztanen hobea da bai belar urtea tomate urtea baiño.

Azaroan ospatu dira anmartinek. Garztaingo herrian eta ohiturari jarraikiz San Martin bezperean, baztan-zopak eta xuri eta beltx ostatu eta etxetan, eta osagarri on ere gure eskualdeko janari goxo hori dastatzeko. San Martin egunean Elizkizun ederra, prediku, otoitz, oiñu eta kantuekin. Euskal Meza hunkigarria. Zorionak gartzaindarrei. Bestak ongi joan dira eta aurtengo mutil-dantzek bere arrakasta haundia izan dute.

Lehenago Berroetako herrian ere Sanmartinek ospatzen zituzten baina orai bizpairu urte herriko bestak Maiatzeko bazkotara aldatuak dituzte. Baina erran dezagun San Martin ez daukatela atzendurik eta berroetarrek ohitura onak maite baitituzte, Azaroaren 11an ere herriak besta egiten du, Meza eta otordu ederrak etxetan, ardi zaharra hil eta baztan-zopaz eta xuri eta beltxak ez dira faltako. Gero umore ona bertsotan eta ele atsegingarrietan. Jarraiki hortan.

Lesakako herrian Azaroko feri famatuak ospatu dituzte. Urtero bezala merkatuko plazan azienda ederra salgai. Arratsaldean euskal jostetak, Aizkolariak Ahari jokua eta Bertsolariak. Jende aunitz bildu da eta denetan bozkarioa nabari zen.

M. ERRA

barcelonatik

EUSKALDUNAK HEMEN

Jakingo duzue noski euskaldunak Barcelonan egiten dutenaren berri. Baina denok ez jakitea ere baditeke. Bijoaz hoientzat hemengo euskaldunen berriak.

Larunbatero biltzen dira Barcelonako euskaldunak meza egitera arratsaldeko zazpietan Lestonnac elizan. Hilaren lehendabiziko igandez bakarrik egiten dute eguerdiko hamabietan.

Atzo bildu nintzen mezatan elkartzen diren eukaldunekin. Ondo etorri zaigu hoiek ezagutzea euskera ikasteko eta Euskal Herriaren berri jakiteko.

Baditu Barcelonako euskal elizelkarteak mezaz kanpo beste lan batzuk esku artean. Euskal abestalde bat sortzen ari da. Euskal abesti saio batzuk ere eratzen ditu: Mikel Laboa eta Joxe Mari Zabalarekin esate baterako.

Lanean ari da euskera ikasten ere zenbait talde. Harremanetan gaude talde hauekin gustiekin. Guk ere badugu euskera ikasteko asmoa beste katalan batzukin elkarturik.

Hemengo liburutegietan bada euskerazko liburik. Baina eskatuak ditugu hemen ez dauden batzuk ere Arantzazura eta Manterolaenera.

GRAN ENCICLOPEDIA CATALANA

Poztuko zaitue, noski, enciclopedia hontan zuetaz hitzegiten dela jakiteak. 289tik 293ra arteko orrialdeak BASC hitzari eskeintzen dizkio. BASQUISMEri, berriz, 305 garrena. Etnografiaz, hizkuntzaz, literaturaz, musikaz eta politikaz mintzatzen da orrialde hoietan. Julio Caro Barojak, Koldo Mitxelenak, Jorge Riezuk, Joxe Angel Irigaray eta Jaime Casajoanak eskua sartu dute lan hoietan. Berton agertzen da euskal ikurra ere.

Jarrai aurrera ondo. Zuekin gaituzue.

Ernest M. Sabater i Siches

bilbao

HERRI IRRATIA DELA-TA

Aspalditik zeblien zurrumurrua, baina oraindik ez dirudi zurrumurru hori argitu denik. Euskarazko saio batzuei buruzko zurrumurrua zen, hain zuzen. Hau, nere ustez, nahiko garrantzitsua da eta, uste genduen laister izango genduela irratitik euskarazko saioren bat entzuteko aukera. Baina gauzak luzatzen eta luzatzen joan dira, itxura denez, eta itxaropena galdu xamarra genduen. Hala ere, orain dator berriro lehengo zurrumurru hori, eta oraingoan, benetan dela ematen du. Ia bada egia den Herri irrati horrek eskeini nahi omen duen euskarazko ordu pilo hori. Bizkaia aldean bazen zerbaiten beharra!

EUSKAL IKASKETA-DEPARTAMENTU BAT DEUSTUN?

Eta gaur zurrumurruez hasi garenez gero, bota dezagun beste bat ere. Alegia, Deustuko Unibertsitateak «Departamento de Estudios Vascos» edo horren antzeko bat eratzea pentsatu du. Oraindik ez dago gauza ziurrik, baina baten batzuk ari dira departamentu hori izan daitekeen zerbait antolatzeko asmotan.

Lehen pausu bezala, gela batzuk gertatzen ari dira liburutegi bat osatzeko bertan. Esan digutenez, Unibertsitatean han hemenka sakabanaturik dauden euskal liburuak bilduko dituzte liburutegi horretan. Gero, euskal gaiez beren ikasketak egin nahi dituztenek izango dute non arkitu zenbait material. Baina hau, dena dela, lehen pauso bat besterik ez da.

Bigarren pausua, departamentu horri forma juridiku bat ematea izango litzake. Horretan dabiltza batzuk orain, baina alferrik litzake horretaz ezer aurreratzea, asmatzen ibili beharko bait genduke. Hala ere, Ikasketa plan berriak direla-ta, zenbait gai «opzional» eman ahal izango duenez gero Unibertsitate bakoitzak, ba omen debiltze gai horiek zeintzuk izan daitezkeen pentsatzen: euskal literatura, hizkuntza, historia eta abar. Orain ere zerbait ematen da, baina, nik uste, oso «zerbait» dela, eta plan tajuzko bat pentsatzen hastez gero, ematen denaz gain gauza asko sartu beharra izango dela. Esan nahi dut, jende berriari eta gai berriei ere leku egin beharko dietela. Beste-la, lehengo modu xamarrean ginake.

SATRUSTEGIREN HITZALDIAK

Egia esan behar bada, jendeak bazuen itxaropen Etnologiazko Ikastaro hari buruz. Batzuk, hala ere euskaraz bait zen, bildur ziren ia ez ote zuen zegokion hainako harera onik izango. Baina, uste dut, jendea nahiko gustora gelditu dela. Gai Interesgarria; euskara, ezin hobea; gazte jendea batez ere, entzule. Batenaz beste, egunero hirurogeiren bat lagun elkartuko ginen Unibertsitateko aretoan. Nik uste, ez dagoela galzki. Eta jendea zaletuz joaten zaigun neurrian, gehitzen joango da entzulegoa ere.

ZELAYA JAUNAREN HITZALDIAK

Ikastaro bat amaitu, eta besta bat hasi, berehalaxe. Orainguoa Dretxoari buruzkoa izango da, Bizkaiko zuzenbideari buruzkoa, alegia. Honako hau, erdaraz. Eta, lehen bezala, Euskal Kultur Mintegia, antolatzaik.

«DEUSTUAR»

irakurleak mintzo

Hartu dut Abenduaren 3ko Z. Argia. Ez nauzue ezagutzen, baina zuen lana nekagarria izango dela pentsatzen dut. Mutilak gera aitzakiak sumatzen, baina ez behar den garaian poza ematen.

Neri, egia esan, ia orain arte anarkiko samarra iruditu zait. Baina luzaro jardun naiz gure aldizkariak aztertzen. Erori zait azkenerako begietako gandua. Gero eta garbiago ikusten ari naiz bide zabaletik zoaztela. Irakurri besterik ez dago nolako senaz eta moldez eusten diozuen eztabaidei. Azkeneko alekoak aipatzearren, aipa ditzadan, Zumaia eta Arrasatekoak.

Ni lehen, bide berdinkolagoren zale nintzen. Baina aspertu, gogaitu eta okitu egin nau. Axaleko begirakada batean, mesedegarri dirudi batasun gehiagoko aldizkariak. Baina sakon aztertzen badugu gure egoera, zapaltzaile, itsu eta itxi gerta ohi da bide estuko aldizkaria.

Bide zabal hortan bi alderdi funtsezkori eusten diozutela garbi, iruditzen zait: euskaltasunari eta langiletasunari. Eta hori beharrezkoa dugu. Baturuntz jotzen duzue euskera aldetik ere, bestelako idazle onik baztertu gabe. Zorionak beraz eta jarrai aurrera gero eta hobea eginaz.

Irakurri dut oharra ere. Horixe idatziko nuen neronek egin behar izan banuen ere. Egia hutsa esaten duzuela uste dut. Egokia iruditzen zait harpidedun bakoitzak beste berri bat egiteko eskaera ere. Ez da zaila eskatzen duzutena. Asko ugalduko litzake besterik gabe.

Zorionak eta agur.

Joxeba Garagorri
Donostia

ZERUKO ARGIA,
euskal kulturaren alde.
Egizu arpide berri bat
zure lagunartean.

(c) Ministerio de Cultura 2005



Ormaiztegi



Ezpeleta



Oñati

usurbil

ATXEGA JAUREGIA

Bilbao-Donostia erregebidean dabilenak badu ikusgarririk Usurbilen ere. Bidean datorrelarik irakur dezake honako hau: Ikus Atxega jauregia. Harlanduz egindako jauregi bikaina ikus dezake.

Ospetsua zen antzinan Atxega deitura, Atxega jauregia, Atxega ahaide nagusia. Hor ibiliko dira Euskal Herrian barna honen ondorengoak. Nahiko zabaldua da Euskal Herrian deitura hori, baina gehiena Usurbilen. Deitura hortako inor ez da gaur jauregi horren jabe.

Ez zaigu eskualdatzea gaizki iruditzen. Bai, ordea, honela alferrik galtzen uztea. Nahita ondatzen uztea. Erorita ikusi nahi izatea, diru gehiago eman dezakeen beste zerbait egitearren.

Ijitoen eta toki aldaketan dabiltzanen zulo bihurturik datza. Barruko zura erabat ondatu dute. Eskalez eta gainentzekoz herria aspertzeko bide bihurtu da. Udaletxeak neurri estuagoak hartu beharko lituzke antzinako edertasunak gal ez ditezen eta nola halako jendearen habi bihur ez dedin.

ZOZKETA

Bada nahiko buruhauste Estaduaren laguntzarik ez duten ikastetxeak aurrera ateratzen. Ezin ume bakoitzeko asko kendu langile eta nekazarien umeek ere sarrera izan dezaten. «Landaberri» ikastolak milloi erdiko zorra egingo du urtearen buruan. Nola ordaindu?

Atez-ate eskean ibili behar. Laguntzaileak ugaldu. Jaialdi eta zozketak egin. Abenduaren 22rako atera du haim zuzen oraingo zozketa. Baina ez berak bakarrik. Udarregi ikastetxearekin elkartu da hortarako. Aspertua dago honelako txartelak hartzen jendea. Baina aspertuagoak daude saltzen dabiltzanak. Baina ez dago beste biderik. Ateak zabalik eduki behar dituzte ikastetxe hauek, hoietara joan nahi duten guztientzat. Inor ez dedila dirurik ez duelako beste norabaitera joan beharrean aurkitu. Baina hortarako herritar denok lagundu behar diruz. Ez muzin egin beraz, zozketa honi. Euskal Herriaren onerako da.

IZENAK

Auzotegi berri asko sortzen ari da Usurbilen. «Poligono» deitura ezartzen zaie guztiei. Ez al dago euskal izen egokiagorik? Edo tokiaren izena bera edo gizon ospetsuren batena? Gaztelu, Udarregi edo nekazarien sindikatua sortu zuanarena?

ANDATZA

pasai donibane

ONGI ETORRIA

On Joseba Beobide, apaiz gaztea, Terranobako ur gelatuetan hilabete batzuek igaro ondoren, gure artean aurkitzen zaigu.

Gabonetako helduko omen dira bakailotako pareja gehienak, «gehienak» diogu, ez bai dira guziak etorriko. Aurten, bi edo hiru bapore-bikote edo pareja, Eguberriak bakailo arrantzan igaroko bai dituzte. Lehen hilabete gutxi egoten ote ziren arrantzale hauek, Gabonak ere lurralde haietan igarotzeko? Bere emazte, seme eta familiatik at, urrun, ezin dezakete GIZON eta PERTSONA bezela behar bezela osa.

Arrantza exkaxa, urri izan da aurten. Alemanak, Frantsezak, Rusoak eta abar berebiziko aurrerapenekin ibiltzen omen dira bakailo arrantzan eta jakina, hemengo bapore zahar, desegokiak, ezin dezakete burruka. Aurrerapen hauek, bakailoen urritasuna, exkasia dakarkite, ez bai diete usten behar bezela hazitzen.

Arrantzale itoak ere izan dira; 9 edo 10ren bat hil omen dira ezbeharrez. Urtarrilatik Maiatza bitartean, otza ikaragarria egin omen du. Gela noiznahi; eta noski, marinel asko, bere ankak izoztu-ta, lehorrera ekarri behar izan zituzten.

Ongi etorri On Joxeba, ondo irabazitako egonaldi atsegina izan dezazula opa dizugu!!

DONE-IBANE?

Horrelaxe ikusi dugu idatzi-ta, Aurrezki Kutxa Munizipaleko zabalkunde edo propaganda batean. Honela idatziko ote da? Kutxako Jakintsuek, azterketa sakonak egin ondoren, horrela behar dugula idatzi erabaki ote dute? Argitzea nahi genduke.

MENDIZALEEN ASTEA

Itsas-Mendi, herriko mendizale Elkarteak antolatu-eta, «Mendizaleen Astea» ospatu genduen dela zenbait egun. Parrokiako zineman, gazte jende ugari ikusi izan genduen, hemen eman bai ziren filmak eta hitzaldiak.

Hona hemen hizlariak eta gaiak: Ramuntxo Puy, herriko gaztea, berak egindako filminak agertu zizkigun. Aralar, Alpes eta Mont Blanc mendiak ikusi genituen.

Felipe Uriarte, herritarra ere, 1974gn urtean Everest mendira joango diren taldetako bat. «Escalada edo gorakaldi» gaia hartuaz, berak dakien trebetasunarekin azaldu zigun zenbait xehetasun.

David Hernandez, Tolosarra, eta Ski kirolaren buruz oso iaioa dena. Gipuzkoako kirol mota edo klase hontan txapeldun izana. Ederki adierazi zigun Ski-ren alderdiak.

Eta azkenik, Alvarez medikuak, median sortu liteken ezbeharretan eta larrialdietan, nola joka behar dugun, adierazi zigun.

Txalo beroak merezi dute ITSAS-MENDI elkarteko gazteek, aste jator eta interesgarri hau antolatu dutelako. Gure aldetik bijoakie gure zorionik beroena. Baina... euskerak ez ote du lekua hitzaldi hauetan?

Iñalurretak

errenteria

XENPELARREN OROIMENEZ

Urriaren 5an, Errenteriako Udaletxeak, Lege-Zahar edo Fuerosko enparantzan prestatutako aretoaren inuagurazioa izan zan. Azkeneko boletiñak dionez, Errenteriak gure erriko bertsolari Xenpelar zanari zor dionez bere izena ipiñi diote. Ez da arrazoi gabeko iritzia, Xenpelar bertsolari eta euskaldun jatorra izan bait zen. Lehen esan bezala, aditzera ematen zaigunez, prestatutako gelatan kulturaren aldeko irakas saioak antolatuko dira. Errenteriako agintariak oartuko ziran, noski, Xenpelar euskalduna zenez gero irakaskintza euskal kultura maillan izan bearko lutekeela. Orrela ez balitz, nundik nora Xenpelar deitura ipiñi? Errenteriarrok gal onetan erantzun jatorra pozik jasoko genuke.

TXISTULARIAK

Azaroaren 26an, Errenteriako txistulari taldeak, Udaletxeko arkupean eresaldi bikaña eskeiñi ziguten. Asko giñan bertan bildutakoak eta ii egoki jotako txistu otsak ao zabal eduki gintuzten. Jarrai aurrera txistulariok, zuen saio auek zabaldu erri guztian, autxek alaitzen bait dute gure erria. Gure aldetik gure esker beroa.

ATSEDEN LEKURIK EZ?

Orain dela denbora gutxi ikusi genuen Udaletxeak egin duen Listorretako atseden lekua. Oso egokia iruditu zitzaigun eta gure zorionik beroenak lan ori aurrera eraman duten guztiei. Bide batez, eskari bat ere egin nai genuke. Gure erriaren inguruan ezin egin ote leike patxarazko toki egoki bat gure umetxoak, eta ain umetxo ez direnak, beren ordu gozoak igaro ditzaten? Guri arazo au garrantzizkoa iruditzen zaigu. Gure erria asko eta asko ari da zabaltzen, eta umetxoak ezin dira lasai jolastu. Aiton eta amona asko ere orrelako leku zabal eta lasai baten premian arkitzen da.

MAASTI

EGUBERRIKO ZOZKETA 4 BIZITZA

Lau bizitzako zozketa, ontan Noiznaiko, Bizitzako, Erbesteratuen ta Aldi-jakiñeko kartillak sartuko dira.

Abendua'ren 31 arte jartzen diran milla pezeta bakoitzeko zenbaki bat emango da, ta beste zenbaki bat jarrita dauden 5.000 pezeta bakoitzeko, milla pezeta sartuezkero.

ABENDUA'REN 31 ARTE

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

(c) Ministerio de Cultura 2005

ELIZAREN BERRI

APAIZA MUNDUKO ALA MUNDUZ KANPOKO?

Apaizak fabrikan-edo lan egin behar ote duen, sindikatoren batetan sar ote ditekeen, alderdi politikuren batetan nahas ote ditekeen, ezkondu ote ditekeen eta beste honelako galderak ez lukete zentzurik izanen, arazo partikular edo axaleko bezala harturik; horien azpian pilpil dabilen funtsezko prolemara eta pasarte honen izenpuruak adierazten duenera jo ezen.

Jakina, ez du inork esanen, munduko izatekotan, ezkontzea edo sindikato batetan sartzea e.a. nahitaezko denik. Esan nahi dena, zera da: apaiz izatekotan beste arazo horien gainetik egon behar omen delakoa egia ote den ala ez, edota zer esan nahi duen arazo horien gainetik egon behar delako horrek.

Hau guztia zertara ote datorren? Ba, honetaraxe: zenbait jende sensazionalista eta anekdotazaleri zenbait gertaeratan halako sensazionalismorako biderik ez dagoela adierazteko, edo, hobeto esan, zenbait gertaerak prolemak sakonago aztertzera eraman behar gaituela adierazteko.

Frantziako Toulousen gertatua, esate batetarako. Apaiz bati, ezkondua bezala bizi dela-eta, artzapezpikuak apaiz-egintza guztia galerazi egiten dio. Orduan, beste sei apaiz-lagunek ere dimititu egiten dute, lagunarekin bat egitekotan. Honela arrazointzen dute: apaiz izatekotan ezkongabea behar du izan gaur egun batek; hori, oraino hor dirauen legediaren indarrez da bakarrik; Kristoren apaiz jarraitu nahi dugu, eta fedeari itsatsirik jarraitzen dugu; baina, ebanjelioari loturikoago den Elizan bizi nahi dugu; gure talde-dimisio honek ez du Gotzaiaren aurkako asaldatzerik adierazi nahi.

Dakigunez, beste apaiz-talde batek bat egin du hauekin. Laikoak, delako apaiz-talde horren herrian, banaturik dabiltza. Baina, arazo hau zenbait gauza argitzeko bederen izan da: uste zen baino jende gehiago da zelibato delako legearen aurka.

Ikusten denez, beraz, arazoa ez da anedokta mailan neurtzekoa; ez da hain xinplea. Ez da ere ELIZAREN BERRI sailean aztertzeko modukoa; zenbait talderi aztergai bat emateko lain baldin bada, ez da gutxi izanen. Honetan guztian, jokuan, Elizarekiko ikusmodu oso bat dago. Nork nori bota lizaioke harria?

Hauxe bai dagoela behinikpehin argi eta garbi: postura horiek ez ditezkeela epaitu halako eta bestelako apaizaren prolema pertsonala bait liran.

GOIERRIKO NORBAITEN ALA NORBAITZUEN ZAPUZKERIAREN AURREAN

Ezaguna da Goierrin lau herritako gazteria Sendotza sakramendurako gertutzen ari dela; behin edo bitan sail honetan beronetan aipatua dut.

Lan horretan diharduen jendearen aurpegia ikusi behar zen joan den larunbatean zortzi! Amorruzkoa, harridurazkoa, urrikizkoa, nazkatia? Denetik zerbait. Sendotza-gertuketa horretaz zerbait esateko bazuela Setien gotzai jaunak, eta zen uste duzu zuela? Harritu zaitez, ez hasarttu; ez du merezi. Gertuketa horri akats hau egozten zitzaiola: gertuketarako deia, zenbait gazteri bakarrik egin zitzaiola. Apaiz arduradunak zur eta lur gelditu ziren. Eta honelatsu erantzun: bihurrikeria franko badugu gure biztzan, baina arazo horretan txintxo ibiliak gaituzu; kalumnia horrekin joan zaizuena, setatsua ezezik, zozoa ere bada.

Beste akusazioa, aurrekoa bezain itxuragabea: apaiz-lagunei ez zitzaiela adierazi; parrokia mailan ez zela egin.

Bat bestea bezain itxuragabeak zirela erantzun zioten aho batez; dato objetiboak bazeudela biak gezurtatzeko.

Eta hitzez esanak laburtuaz eta sendotuaz, beste zenbait gauzaren artean, honela adierazi zitzaion idatzirik, bi arazo horiei buruz:

"...Gotzai jaunaren karta hartzean, nork bere apaizlagunei adierazten die nola edo hala: Itsasondon erretorea bera da karta hartu duena; Zaldibin, izatez, artzantza-lana dadukana, karta hartu duena bera da; Idiazabalen gotzai jaunaren kartaren berri erretoreari ematen zaio; orobat, Lazkaon, hitzez (Jaxinto Setien bera doakio erretoreari kartaren berri emanaz; orduan erretoreak, gertuketa berehalaxe hasi behar dutela esaten dio; hartan, Jakintok, lau apaizen artean plan bat gertutzen ari direla adierazten dio, eta horretan geratzen dira..." "...Hori dela-eta, herri bakoitzean nork bere erara egin zuen deia: Itsasondon, gazte sail bat enkargatu zen ahoz-aho egitera; Zaldibin, Mezatan adierazi zen; Idiazabalen gazte bakoitzari karta bat zuzendu zitzaion (sobreen zuzenbidea erretoreak berak ipintzen zuelarik); Lazkaon, gazte bakoitzari karta bat zuzendu zitzaion; izenak, Bataio-liburutik atera ziren (117 edo ziren); horietaz gainera, kanpotik etorritako sail bati ere idatzi zitzaion; gainera, hau ohar erazten zen: norbaitek karta hartu gabekoren bat ezagutzen bazuen, deia pasatzeko.

Lazkaon, gainera, bai erretoreari, bai D. Pedro Begiristaini, bai beneditarrei idazki batez adierazi zitzaien plana".

Garbiago behar ahal da?

AMUNSA

"Politikan Kristau Iharduna"

(Frantziako Gotzai-Batzar Nagusiak)

II Kapituloa.—*Kristauak, Iskanbilak eta Giza-maila arteko borrokak* (jarraiera)

3.—GIZA-MAILA ARTEKO BURUZKO MARXISTA ANALISIAZ ZENBAIT GOGAKETA

Bistan dagoenez, ezin sar gintezke hemen giza-maila arteko borrokaz marxismoak dagien analisia sakon aztertzen. Beharrezko deritzagu, halere, gogaketarako zenbait zuin ipintzeari.

a) *Maila arteko borroka.* Marxisten iritziz, giza-kondaira guztia zipriztindu duten giza-maila arteko borrokak, bi maila arteko borroka gorri bilakatu dira gaur egun: produkzio-tresnen jabe eta langile arteko borroka, «burgesia» eta «proletalgo» arteko borroka. Gainerako borroka guztiak (familiarteko istilu, gerrate, erlijio-etendura...) borroka nagusi horren adierazpen bezala interpretatzen dituzte marxistek.

Produkzio-harremanetan oinarrituriko ikusmodu horretan sartzen dira giza-erlazio guztiak, bi giza-maila etsai horien artean parte hartzen dutelarik. Gizona, halabaina, ez diteke giza-maila hutsezko erlaziotara muga inoiz. Gizarte borroka guztiak bi maila arteko oinarrizko borrokara mugutzea, zientziazko analisia baten fruitu bezala aurkeztu ohi da. Horrez gero, jator jokatzekotan, derriorrezkoa da azterketa argi bat, gaurko borroka guztiak produkzio-harremanezko iskanbilak zertaraino argi ditzakeen ikusteko. Azterketa hori, errejimen guztietan eginiko experientzaren argiz burutu beharko litzake.

Lehendabizi, hau nabari da: marxista beraien artean ere, matizazio asko egiten zaiola hasierako eskemari: bi giza-maila etsai horien ingurua malguago hartzen dute. Diruaren eragin determinagarria baztertu gabe, gaur errejimen guztietan (edozein ideologiazko eta sistimazko) direlarik ere) nagusi dabilen borrokari beste azalpide bat bilatu nahi dio: ea, alegia, borroka hori ez ote den erabaki-ahalmena dadukatenen (nahiz produkzio-tresnen jabe ez izan, teknokrata direlarik alegia) eta ez dadukatenen eta hori jasaiten dutenen artekoa. Ageri denez, hasierako eskemak zutik darrai; baina, begirari entzungarri den askok ez du onartzen hark dagien xinplifikazioa.

Marxista zientzia, gizarte-zientzia oro bezala, ideologiazko aukerabidez eta aurre-iritziz baldintzapetua dago, eta nahitaezkoa da horietaz ere berezketa bat egitea. Esan dezagun ere, ordea, marxista analisia kritikatzen dutenek, antzeko berezketa egin behar luketela beren aukerabide eta aurre-iritzi ideologiazkoei buruz.

b) *Egiturak eta askatasuna.* Marxista analisiak egiturei buruzko arazoa azpimarratzen du; egituren bidez hazten dira, ba, gizarte-borrokak. Horrela, nagusikeriazko eta indarkeriazko harremanak, gizonarengan, ekonomiazko, politikazko edo kulturazko faktoreei darien alienazioa baino sakonagoa den jatorrizko iturria kerizpean gelditzen da. Edozein gizarte-mailatako delarik ere, giza-bihotza erdibiturik dago. Gizon orotan eta talde orotan agertzen den indar-ametsa ezin izkutatzen ahal da egitura-aldaketa hutsez. Irriki horrek gizarte-sistima orotan bizirik darrai.

Norberaren askatasunerako dagien borrokan zehar, pertsona orok behar luke aztertu indarkeriarako duen grina. Guztiek behar lukete saiatu, bai asmoz harturiko xedean, bai haretarako bidetan, gizadi osoaren askatasunaren kontrako ezer ere sar ez dadin. Guztiok dakigu, berrituriko egituretan ere, gizona beste lakotzeko moduko posibilitateak dabiltzala ezkutuan.

Kristo, gizonari pertsona-dintasuna damaion askatasuna, honen sustraian bertan sendatzera etorri da. Sustrai horretan atxiki behar luke gizaki osoa ebanjeliozko konbertsioak eta, horrela, egitura oro kutsatu. Pertsona eta honen askatasuna ez ditezke bereiz, hazteko bide bakarra damaieten elkar-loturetatik. Hazte hori errazten nahiz porrokatzen ahal duten egituretatik eten ezinezkoak dira.

d) *Hasieran borroka?* Bilakatze eta gizarte-kondaira guztia ez diteke hesitu borroken handitze hutsera. Gizarte-bizitza beraren hasieran, pertsonak, elkar-laguntza eta elkartasuna haintzat hartzeko joera bat nabari da; politika eta sozial-ekintzabide orotarako baldintza den joera alegia. Oinarrizko dinamismo edo joera hori gabe, hain zuzen, ezinezko bait litzake borroka bera ere; funtsean, pertsona batek bestearekiko duen atxikidura-gogoari bait dario borroka hori.

Eta hori, kristauarengan, fedearekin bat dator: bere iturria Jainkoarengan duen adiskidetasunerako dinamismoan sinesten bait du. Dinamismo horrek ez dio uzten gizonari borrokan geratzen, baizik barnean daraman elkartasun eta adiskidetasun gogo hori indartzera eragiten dio (ikus, Ef. 2, 10-18). Jainkoaren irudira eginiko giza-bihotzean txertaturik dagoelarik, Kristok buruturiko adiskidetzeaz eragin berria hartzen du.

Gizonak buruz-buru ipintzen dituen etsaigoari buruz, kritikazko betebeharra daduka fedeak. Kristauak, edozein analisiari atxikitzen zaiolarik ere, iskanbila eta borrokak, gizonarekiko eta taldeekiko, etsaiei berekiko ere, errespetoz bizi behar ditu. Fedeak, jakina, ez dio galeraziko zuzengabekeria, desberdinkeria eta zapalkeria erauzten saiatzea; baina, etsaia eta honengan legoken egia-zatia, jazargoa gogorrena litzakeelarik ere, errespetatzeko eskatzen dio.

Askatasun osorako giltza, kristauak, Kristo hila eta berbiztua begiztatzean aurkitzen du. «Herioaren alderantzizkoa den biziaren haruntztik, Kristo, Bizia da; morrontzaren alderantzizkoa den haruntztik, Askatasuna den bezalaxe. Horixe da askatasunari eta bizitzari uko egiteak adierazten duena: gizadiak morrontzara hertsatzen du, baina morroi honek bere bizia bere gogoz emateko ahalmena badu, eta hala dagi. Gizadiak gurutzera darama, eta hil egiten da; baina, heriotze horretatik, bizitzaren jabe jaikitzen da. Horiek dira Jainkoa zer den adierazten duten egintzak: Jainkoa Maitasuna bait da» (E. Pousset)» (Amaia).

APAIZAK DIRALA TA

Urriaren azken astean, Lourd-en, Batzar Nagusian bildu ziran Frantziako Gotzaiak. Bi gai mamitsuak zituzten esku artean: «POLITIKA, ELIZA eta SINISMENA» leenengoa; «APAIZ IZATEKO NOLA GERTU ETA EZI APAIZ-GAIEK» bigarrena.

Onoko au Gotzai Biltzarra amaitu aurretik egiña dut. Batzarreko azken erabakiak ez ditut eskuratu, beraz. Parisko Telebisioan entzuna dut baiña, Politika eta Elizari buruz, gaitzetsi eta kondenatzen dutela Ebanjelioaren izenean, TOTALITARISMO GUZIA Frantziako Gotzaiek.

«APAIZ GAIEK NOLA EZI?» Gai au sakondu eta ikasi duena, gero bere lana Batzarrean irakurtzeko, Fretellier, Bordeleko Artxapezpikuaren Gotzai Laguntzaillea, izendatua zen. Biltzarrean, bere lanaren berri eman aurretik, gauza interesgarriak adierazi ditu. Bere esanak izango dira irakurgai onen giar eta mami.

«Gu ez geran bezelako gazteak, gazte oso diferenteak, apaizetarako ezitzen ari gera», dio Fretellier Gotzaiak. «Guk moldatutako apaiz gai auek, bi millagarren urtean apaiz eta Gotzai izango dira».

Emen dago koska: Ezitzaille eta ezi-bearrekoak ain desberdiñak izanik izaera eta pentsaeran, zer moldetan tajutu ditezke apaiz gai auek? Zer eratako apaizak egiten aalegindu bear dute gazte auen Maisuek?

Frantziako apaiz egoera, garbi agertzen digu Gotzaiak; gordin eta dan bezela egia esaten digu:

«Apaiz gaiak guti dira Frantzian eta apaizten diranak gero eta gutiago. Apaiz izateari gero eta geiagok uzten dio; auetako asko gazteak dira. Badira bai, apaiz izan nai duten gazteak; auek ordea guk eskeintzen dizkiegun molde eta egituretan ez dute sartu nai. Zentzuko eta baliokoak ditugu gazte auetako asko».

«Zenbaketa-Estadistikak digutenez, 1971go urtean, zazpireun apaiz gutiago ziran Frantzian. Berrogei eta bost eta irurogei ta bost urtekoak dira geienak. Emendik ogei urtera, zenbat apaiz izango da Frantzian?».

«Apaiz gutxitze au dalata, bi joera eta pentsakizun ditugu gaur egunean. Aldaketaldi-Krisis bat baizik ez dugu apaiz-gutxitze au. Elizak bere baitan dituen arazoei lotuta dago apaizaren krisis au. Elizaren arazoak bukatzerakoan, apaiz-gutxitzea ere bukatuko da. Orain arte erabillitako eziketari eutsi bear zaio. Obetu bai, baiña aldatu ez; leengo bidetik ezi geroko apaizak».

«Guztiz bestelakoa da beste askoren iritzia: Apaiz gaien eziketa nai eta nai ez aldatu bearrezkoa da. Ongi ikusten saiatu bear da, nolakoa izango dan gerora, apaiz bizitza eta bere ministerio-zerbitzua. Geroko apaiz ministerioari begiratuta, geroko apaiz bizitza sakonki ikasita, oiñarritu bear da gerora izango diran gaur eguneko apaiz gaien eziketa».

«Nolako apaizak egin bear dira? Nolako Elizarentzat? Biarko Elizaren arpegiari begira egiñikako galderak dira auek».

«Eliza arpegiz aldatzen ari zaigu. Parrokiak aldaketa bizian arkitzen dira. Emen eta an sortzen ari diren kristau-taldeei arpegi eman bear die parrokiak; orobat kanpotik datozen arrotzei, jakite, kultura aldetik, gizarte bizitza, zaar eta gazte diralako talde desberdiñak egiten dituztenei eta abar. Taldeak, mugimentuak kristauen artean; batzuek parrokiari zerbaitetan lotuta, beste batzuek guztiz aldenduta... Nork igerri nun dagoen Espiritu Santuaren deia eta naia? Ez dugu emen, auzitan, kristau fedea; Fede ori, nolatan bizi bear dugun gure artean, ori da gaur eguneko arazo latza.

—oOo—

Gretellier Gotzaiaren pentsakizun auek guretzat ere balio dute. Arazo berdiñez josita gaude gu er: Urri apaizak. Apaiz gazte askok an ka apaizgoari. Apaiz gai berri guti. Apaiz nai dutenak ere gure barruti ta egiturak nai ez. Gaurko erako Parrokirik nai ez.

Geroko Elizari begira ezi bear ditugu apaiz-gaiak. Nolakoa izango da ordea geroko Eliza? Garbi ikusten al duzu? Pluralismo aundikoa noski. Era askotako apaizak izango dira beraz. Taldeak taldekoarentzat Gotzaiarekin batera aukeratutako apaizak? Batzuk edo asko, ezkondutakoak? Besteak gaur bezalakoak? Gaur eguneko Maisu eta Ezitzalleak, iltzen ari dan mundurako egiñikakoak dira. Nola asmatu bear dute datorren mundu berrirako apaiz berriak sortzen?

Arri-losa baten azpian bezela uzten gaitu ainbat eta ainbat galderak. Ez gaitzatela ordea txirtxilla. Kristoren Espirituak bultzatuta, bide berriak irekiko dira. Guti edo asko guzien eginkizuna da au. Lurrean illunpeak beti izango ditugu. Nai eta naiezkoak ditugu; guzia argi ikuste ezkeroz, Jainko giñake. Apaltasun ederrean beti bizi bear, Kristoren Argiari begira, Berak urra ditzan gaur eguneko illunpe aundiegiak.

AROSTEGI'TAR JOK

(c) Ministerio de Cultura 2005

EUSKAL PRIMITIBISMOAREN HILDOTIK

AZKEN bolara honetan zenbait gertaera dela ta, euskaldunen primitibismoa ikusi ahal izan dugula deritzait.

Ez pentsa primitibismo hau gaur goizean sortutako gauza bat denik, ez eta gutiago ere. Aitzitik, gure kondairan zehar ezaugarri nabarmenetako bat dela esango nuke. Nabarmenetako bat, nabarmenena ez bada.

Gai hau ikutu dudanez gero ez uste izan Euskal-Herriko kondaira aztertzen hasiko naizenik (eta ez, alajaina, exenplu franko ez dagoelako), primitibismo horrek Euskal Herrian tinko jarraitzen duelako, aipatzea beharrezkoa ikusi dudalako baizik.

Ene ustez, primitibismo horrek bi puntu nabarmen du. Bi ezaugarri garbien bitartez agertzen da.

Bat, euskaldunok errealitatea baztertzeko dugun ohitura eta bestea euskal estrateji baten falta.

Bi hauk loturik daude eta bata bestearen ondorio eta iturberekoak besterik ez dira. Biak, beraz, elkarrekin ikusiko ditugu.

Lehennego puntua, hots, gure errealitatea baztertzeko ohitura, gauza nabari dela uste dut. Guttitan baitugu benetako errealitatea kontuan hartzen eta kontuan hartu gabe, abiatzen gara gure aferak konpontzera. Ez gara ohartzen honek, ekintzak era honetan planteatzeak sentidurik ez duela eta azken finean egiten duguna zera dela, gure errealitateari uko egitea, eta honen ondorioz kaltegarriena: geure buruari harriak botatzea, alegia.

Zeren, badirudi «morala humanista bihotz-bera» dela gure gidari bakarra eta gainera, politikaren ukamena balitz bezala.

Badirudi arazo bat aztertzerakoan ezin dugula inportanteena ikusi eta bigarren eta hirugarren mailako diren gauzetatik bereizi. Are gutiago, jakina, kontexto batean sartu eta «perspektiba» sakon batek epaitu hura.

Hau dena maila guztietan nabaitzen da eta exenploak milaka har ditzakegu.

Mila exenplu hoien arten bat hartuko dut, alde batetik azken bolara honetan zoritxarrezko berria delako eta bestetik gure primitibismo horren expresio paregabekoa delako.

Ikastolen egoera eta istiluaz jabetuak zaudete eta ez dut uste, beraz, egoera hoien berririk eman behar dudanik. Bai, ordea, honetaz, zenbait eritzi azaldu.

Ba dirudi ez garela benetan ohartzen euskal pedagogiaren oinarriak arriskuan jartzen ari direlarik. Euskal-Herri berri baten ardatzak ondatu nahiz dabiltzalarik, «denek dutela eskubiderik» hasten gara... (eta, noski, gu gara, hain zuzen, denen eskubideen aldekoak, bainan benetan).

Zeren, euskaldun batentzat garbi eta klaro egon behar duena zera da: ikastolak NAHI ditugula. Hau da inportanteena, bainan, zenbait gauza ikusirik, badirudi ezetz.

Ikastolak, mundu honetan gauza guztiak bezala, alde on eta txarrak dituzte (eta gure egoeran gaudelarik ez zitekean bestela izan). Bainan gureak dira, eta gainera, onak txarrak baino gehiago dituztela, inork ezinko du ukatu (euskalduna baldin bada behintzat).

Orduan arazo hau nahiko garbi dago eta, beraz, ahal dugun guztiá egin behar dugu ikastolak zaindu, ugaldu eta hobetzeko. Hau da, ikastolaren arazoa aztertzerakoan, nahi ta nahiezko oinarri eta jomuga.

Lege Berria dela-ta, ezer esan beharrik ahal dago zein diren ikastolaren benetako kezkak? Aski ongi bait dakigu ikastolak zenbait tokitan hil ala biziko egoeran datzatela eta, besteak beste, honen arrazoi funtsezkoenen bat finanziazioarena dela.

Kontexto honetan, egoera honetan, nola uler daitezke ikastolak jasaten ari diren istiluak?

Lehen nionez, ez da oso argia izan behar zenbait gauza nahiko garbi ikusteko.

1) Lehenik, guk ez ezik, inortxok ere ez duela ikastolarik nahi. Hori mila aldiz frokatu digute eta ez dut uste berriz frogatu behar den gauza bat denik.

2) Bigarrenik, oztopo berriak gure «barrendik» sortu direla eta lehenbiziko helburua betetzen ari dira. Bost axola zaigu elemento hauk tontoak ala argiak diren, objetiboki, lan berdina egiten baitute. (Edo hoze esateko, «argiak» baldin badira okerrago, garbi ikus daitekeen bezala).

Ikastolaren aurka sortu den joera berria funtsez hau da: bigarren eta hirugarren mailako eztabaidak sortu, bitartean, benetako arazoei erantzunik eman ez dezaiegun.

Lan hau egiteko, gure primitibismoaz baliatzen dira eta hau dena esateko garaia heldu da. Lan horren ondorioak nabarmentzen ari dira eta behin-betirako panteatu beharra dago. Beti, istiluek, lehen planteatutako eskema horri jarraitzen baitiote.

Azken honen frogantza bezala, azter ditzagun azkeneko istiluak eta ikusiko dugu zer nolako konklusioetara heltzen garen.

1) Ikastolaren arazoa, laboral maila «huts» batean planteatzea, benetako egoera kontuam hartu gabe, gure egoerari uko egitea da. Baldintza objetiboaz baliatzea eta bestea, ikastolaren aurka joateko besterik ez da.

2) Zenbait elemento, bostgarren mailiako arazo-ortografiko sartu-eraziz zer nolako lan egiten ari dira?

H'ren arazoa oso interesgarria izan da, zoritxarrez, herri baten ahulezia ikusteko. Nola uler daiteke, bestela, horrelako tontokeria baten gatik era horretako istiluak sortzea Ez ahal dago nahiko garbi ikastoletan eta Euskal Herri osoan indarrak ahalik eta gehien erdibitzeko dela?

3) Gauza bera, religioarekiko «sortu» den arazo bitxiarekin. Gaurko kontextoan sentidurik ere ez du.

4) Azkenik pedagogia «askatua» eta holako ez dakit zer-keria gure egoeran erabiltzea, demagogia huts-hutsa da eta hori badakigu «zer» den...

Dena den, jokabide hauen ondorioak (ez nahi luketenak, egiazki gertatzen ari direnak, hauk dira:

1) Alde batetik ikastolaren prestigioa lurrean dago. Bere seme-alabak zalantzan dituzten zenbait gurasoak atzera jotzen du. Beldur da. Dagoen baino kinka larriagora eramatea da, eta, noski, ikastolaren aurka alde guztietatik egiten den propagandari aitzakiak ematea da.

2) Gainera, konturatzen ez bagara ere, denbora galtzen ari gara eta bitartean gure benetako arazoei za zaie erantzunik ematen.

3) Hortik aparte, azken arazoek ekarriko dutena zera da: diru eta jabegoa galtzea.

—o0o—

Ondorio politak benetan... batzuren batzu nahiko pozik egongo dira.

Bainan az ahal dago nahiko garbi bai batzuk, bai besteak Euskal-Herriaren aurka ari direla? Ez ahal gara ohartzen ikastolak burjesak direla esaten dutenak eta marxista direla esaten dutenak, txanpon bakarraren bi aurpegi besterik ez direla? Zer nolako konponketa, hoiekin, bada? Beldur gabe, beren jokoa salatu behar dugu. Horretaz ohartzeko egiten den lana eta ekintza ez dira alferrikakoak izango, alajaina.

Eta hortarako, Euskal Herrian izugarrizko nahaste-borrastea dagoela ikusten saia behar dugu; eta sakonki gero; zeren eta hau da arrazoi funtsezkoena, ez baitugu gure egoeraz jabetu nahi eta zein gaizki gauden ikusi.

Ez gara ohartzen oinarriak egin gabe daudela eta zerbait positibo egiteko, lehenbiziko lana hau dela; non gauden eta nortzuen artean. Zein dabilen gure aurka, azalez ez baino mamiz.

Bainan ez dugu nahi, espero baitugu ez dakit nondik, izar on bat, hau dena garai txar bat besterik ez dela uste baitugu. Gure gainean jarri den laino bat. Ez jaunak primitibismo politikoa besterik ez da eta ohartzen ez garan bitartean, ezer positibo egiterik ez dago.

Hau dena, beste hitzetan esanda, estratejiarik eza deritza, eta ez dut uste ezer esan behar denik duen garrantzi handiz.

Ez dugun bitartean, besteen estratejiaren menpean erortzen gara eta hau mila aldiz egin dugu eta orain gauza berbera, zeren guk ez dugu estratejiarik izango bainan beraiek bai eta nahiko taxutua, alajaina.

Gure egoera, hau da. Egoera guztiz tristea benetan, bainan, egoera honi euskaldunok irtenbiderik ematen ez badiogu nork emango dio?

AURTIZ



(c) Ministerio de Cultura 2005